



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko maiatzaren 9a

67. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Utzamako biometanizazio plantari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina. (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ultzamako biometanizazio plantari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Ultzamako biometanizazio plantari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Ultzamako biometanizazio plantari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|---|---|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Helburua, norainokoak eta mugak (4. or.).</p> <p>III. Ultzamako biogas plantaren kontratazio, eraikuntza eta kudeaketa, kronologikoki azaldua (5. or.).</p> | <p>IV. Plantan gastaturiko funts publikoei buruzko konklusioak (8. or.).</p> <p>V. Udal jardueraren legezkotasuna (10. or.).</p> <p>VI. oru Administrazioaren jardueraren legezkotasunari buruzko iritzia (14. or.).</p> <p>VII. Azpiegituraren egoera eta horrek Ultzamako Udalari eragin diezaiokeena (16. or.).</p> <p>VIII. Gomendioak (17. or.).</p> <p>1. eranskina. Ultzama biogas plantaren eraikuntza-proiektuak (18. or.).</p> <p>2. eranskina. Planta (19. or.).</p> <p>3. eranskina. Aurrekontuaren eta justifikaturiko inbertsioaren konparazioa (21. or.).</p> <p>4. eranskina. Ultzamako biometanizazio plantaren adjudikazio prozesuaren eskema (22. or.).</p> <p>5. eranskina. Bahiketaren hasieran egin beharrekoko konponketa lanen balorazio ekonomikoa (23. or.).</p> <p>6. eranskina. Bioenergia Ultzamak 2015eko abenduaren 31n kudeatzen zituen simaurtegi planak (24. or.).</p> <p>7. eranskina. Bioenergia plantaren egoerari buruzko txostenen laburpena (25. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari eginiko alegazioak (28. or.).</p> <p>Kontuen Ganberaren erantzuna behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei (45. or.).</p> |
|---|---|

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzordeak, 2014ko urrian, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nabai eta Izquierda-Ezkerra parlamentari taldeek proposaturik, erabaki zuen Nafarroako Kontuen Ganberari fiskalizazio txosten bat eskatzea. Honakoak dira eskaeraren xehetasunak:

- Ultzamako biometanizazio plantari buruzko auditoria ekonomikoa eta legezketasunarena, proiektu eta obra lanen kontratazio, burutze eta ustiapen prozesua aztertzea.
- Nafarroako Gobernuak izaniko jarduera aztertzea, prozesu osoan eta plantara bideraturiko funts publikoen kudeaketan.
- Azpiegituraren egoera eta horrek Ultzamako Udalean eragin dezakeena aztertzea.

Kontuen Ganberaren 2015eko lan-programan sartu zen eskaera, erreserban utzi bazen ere. Ondoren, 2016ko fiskalizazio programak jaso zuen.

Txostena zortzi ataletan dago banaturik, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburua, norainokoa eta mugak azaltzen ditugu. Hirugarrenean, biogas plantaren kontratazio, eraikuntza eta kudeaketari loturiko jarduera nagusien berri ematen dugu. Laugarrenean, plantan gastaturiko funts publikoen konklusioak jaso dira. Bosgarren eta seigarrenean, Ultzamako Udalen eta Foru Administrazioaren jardueren legezketasunari buruzko iritzia ematen dugu, hurrenez hurren. Zazpigarrenak azpiegituraren egoera eta horrek Ultzamako Udalari eragin diezaikeena aztertzen ditu. Zortzigarrenak Kontuen Ganberaren gomendioak jasotzen ditu. Txostenak zazpi eranskin ditu.

Zelaiko lana 2016ko uztailetik azarora bitartean egin zuen auditoria teknikari batek eta auditore batek osaturiko taldeak. Irailean beste teknikari bat bildu zen taldera. Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza ere izan dugu.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Ultzamako Udaleko langileei, Garapen Ekonomikoko, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuetako langileei.

Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, fiskalizazio lana ondorengoei eman zitzaizen, alegazioak aurkezteko aukera emateko:

- Ultzamako bi alkate ohi.
- Ultzamako alkatea.
- Nafarroako Gobernuko Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazio Departamentuko kontseilaria.
- Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikoa Departamentuko kontseilaria.
- Sodenako zuzendari-kudeatzailea.

Kontuen Ganberak finkaturiko epearen barruan honakoen alegazioak aurkeztu dira: Ultzamako bi alkate ohiak eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazio Departamentuko kontseilaria. Behin betiko txostenean daude jasota, Kontuen Ganberaren erantzunarekin batera.

II. HELBURUA, NORAINOKOAK ETA MUGAK

Txostenaren helburua da honako gaiei buruzko iritzia eta konklusioak adieraztea:

- Aipaturiko plantan gastaturiko funts publikoen zenbatekoa.
- Biometanizazio plantaren obra lanen eta proiektuaren kontratazio, betetze eta ustiapenaren legezketasuna.
- Nafarroako Gobernuaren jarduera, plantara bideraturiko funts publikoen kudeaketan.
- Azpiegituraren egoera eta horrek Ultzamako Udalari eragin diezaiokeena.

Lanaren norainokoari dagokionez, azpiegituraren eraikuntzari eta haren kudeaketari loturiko udal espedienteak aztertu ditugu. Planta egiteko laguntza eman zuten Nafarroako Gobernuko departamentuetako diru-laguntzen espedienteak ere aztertu ditugu. Halaber, Sodena sozietate publikoak emaniko abalen espedienteak ere erabili ditugu.

Diruz lagundutako gastuak justifikatzeko esleipendunak erabili dituen faktura, ziurtagiri eta kontabilitate-orriak ere aztertu ditugu. Azkenik, Landa Garapeneko, Toki Administrazioiko eta In-gurumeneko Departamentutik ateratako datu batzuk aztertu ditugu, ondoko gaiei loturik: inguru-menaren babesa, abeltzaintza-zama eta simaurren kudeaketa..

Lanak hartzen duen denbora 2007tik (aurreproiektu eta eraikuntzaren proiektuen erredakzioa) 2017ko martxora artekoa da.

Fiskalizazioa mugatzen duen kontu nagusia da Udalak, behin plantaren obra lanen eta kudeaketaren kontratua egin ondoren, ez zuela haren betetzearen jarraipen eta kontrolik egin. Ez dugu jaso zuinketa aktarik, obra lanen ziurtagiririk, azpikontraten komunikaziorik, ez eta obra-lanen betetze prozesuko bestelako dokumentazioa ere.

III. ULTZAMAKO BIOGAS PLANTAREN KONTRATAZIO, ERAIKUNTZA ETA KUDEAKETA, KRONOLOGIKOKI AZALDUA

Ultzamako Udala 2007an hasi zen bultzatzen bertako biogas planta, abeltzaintza-ustategi askotan minden kudeaketak sortzen zuen arazoa gainditzeko.

Udalak berak kudeatu zituen obraren aurreproiektuaren eta proiektuaren erredakzioaren kontratazioa. 2007ko apiril eta urriko data badute ere, Udalak 2008ko martxoan eta apirilean adjudikatu zituen kontratuak, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez.

2008ko irailean, Udalak diru-laguntza eskatu zion Foru Administrazioari, bi kontzepturengatik: industria-inbertsioa eta toki azpiegituren hobekuntza. Lehenbizikoagatik 906.008 euro jaso zituen. Garapen Ekonomiko Departamentuak onartu zuen, 2010eko uztailean. Abeltzaintzako toki azpiegituretako diru-laguntzak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren urteko deialdiak egin ahala eskatu ziren. Bide horretatik kobraturikoa 1.556.291 euro izan zen.

2008ko urrian, Udalak bere gain hartu zuen zonako abeltzaintzako hondakinen bilketa eta ondorengo tratamendua. Obra publikoaren esleipenerako prozedura urrian bertan hasi zen, eraikuntzaren proiektua eta kontratazioaren administrazio plegua onartuz. Plantak abeltzaintzako minden kudeaketa, gas ekoizpena eta mindak biltzeko baltsak edo hobiak eskaini behar zituen.

Espedientea prozedura irekiaren bidez egin zen, eskaintza hoberena adjudikazio-irizpidetzat hartuz. Emakida-kontratua 2008ko azaroaren 5ean eman zitzaion aurkezturiko bi eskaintzetako bati.

Administrazio-emakida 30 urterako egin zen, 50eraino luzagarria, pleguak jasotzen duenez.

Esleipendunak gas eta elektrizitateak emaniko diru-sarrerak, baldintza-agiriaren arabera minden bilketa eta tratamendurako abeltzainek ordainduriko tarifa eta esleipenaren bidez lorturiko beste edozein diru-sarrera jasotzeko eskubidea zuen.

Udalak, bere aldetik, pleguak zehazturiko kanona kobratzeko eskubidea zuen: 20.000 euro ustiapenaren lehen urtean, 30.000 bigarrenean eta 40.000 euro hirugarren eta ondorengoetan. Esleipendunaren eskaintzak ez zuen kanonaren zenbatekoa hobetu. Enpresak 2010etik 2012ra arteko kanona ordaindu zuen. 2013 eta 2014koa, berriz, ordaindu gabe utzi zituen: 76.567 euro, BEZ kanpo.

Obraren aurrekontua 4.209.494 euro zen, BEZ-ik gabe, eta obra lanak egiteko epea 12 hilabetekoa.

2007ko martxora arte, esleipendunaren helburu soziala zen kogenerazio makineria saltzea, eta sozietatearen kapitala 16.828 euro zen. Orduan sozietatearen kapitala handitu zuen, 123.171 euroraino, eta helburuan ere bestelako zereginak sartu zituen: kogenerazio, biomasa eta biogas galdaren instalazioak, eta ingeniari lanak.

Esleipendunaren eskaintzaren arabera, digestio eta *motogeneradoreen* plantaren teknologia, bai eta obra zibila ere, azpikontratuen bidez eginen ziren. Dena den, ez zuen zehaztu azpikontratuen portzentajea, obra lan guztiak kontuan hartuz. Baldintza-agiriak esleituriko obra lan guztiak azpikontratatzeko aukera ematen zuen.

2008ko abenduan, abeltzainen kooperatiba batek, aipaturiko esleipendunarekin, zonako enpresa batzuekin, proiektuak eginak zituen enpresarekin eta partikular batzuekin Bioenergia Ultzama sortu zuen. Ondoren, enpresak eta esleipendunak esleipena enpresa berriari emateko eskatu zioten Udalari. Ultzamako Udalak, 2009ko otsailean, oniritzia eman zion eskaerari. Udalak, hasierako esleipendunak eta esleipendun berriak 2009ko otsailen sinatu zuten emakida-kontratua.

2010eko martxoan, bi finantza erakundek 1,8 milioiko mailegua eman zioten Bioenergía Ultzama enpresari. Emakidaren hipoteka eta abalak eskatu zituzten berrmetzat. Udalak baimendu egin zuen emakidaren hipoteka. Merkataritza-erregistroan dago jasota. Abalak Nafincok (gaur egun Sodena) eman zituen: 900.000 euro.

Obra lanak 2010eko urrian amaitu ziren. Obra amaierako agiriak dioenez, zuzendaritza tekniko ados zegoen obra lanen emaitzarekin. Planta 2010eko abenduan zabaldu zen.

2012ko martxoan, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak interesik gabeko 573.265 euroko mailegu bat eman zion Bioenergía Ultzama enpresari, biogasari loturiko ikerketa proiektu bat finantzatzeko. Ministerioak, ondoren, dirua itzultzeko eskatu zuen, enpresak ez zuelako gastua justifikatu. Enpresak, ordea, ez zuen deus itzuli.

2014ko apirilean, Bioenergía Ultzamak hartzekodunen lehiaketa eskatu zuen merkataritzako jurisdikzioan. 2014ko urrian, epaileak kitapen fasea zabaltzea agindu zuen, eta horrek berez enpresaren deuseztapena ekarri zuen.

Hartzekodunen lehiaketa, batetik: bestetik, Bioenergía Ultzamak jakinarazi zion Udalari minden bilketa eta plantako lanak bertan behera utziko zituela. Hori dena ikusita, Udalak, 2014ko azaroan, esleipena bahitzea erabaki zuen.

Bahiketarekin batera kontratua, behin behinean, bertan behera gelditzen da, esleipendunak ez duelako agindutakoa bete. Horren helburua da zerbitzu publikoa bermatzea. Esleipena bahiturik dagoen bitartean, obra edo zerbitzuaren esleipena Udalak egiten du zuzenean, edo Udalak izendaturikoak, baina arriskua beti ere esleipendunak hartzen du.

Horren ondoren, Udalak bost aldiz luzatu zuen bahiketa, 2015eko azarora arte.

2015eko abenduan, Udalak kontratua bertan behera uzteko ebazpena onartu zuen, horren ondorio ekonomikoak zehaztuz.

Konkurto-administrazioak, finantza entitate hartzekodun batek eta Sodenak kontratua bertan behera utzi zuen udal erabakiaren aurkako alegazioak aurkeztu zituzten. Nafarroako Kontseiluak, 2016ko apirilaren 28ko ebazpenaren bidez, zuzenbidearen aurkakotzat jo zituen udalaren bi erabaki: kontratuari loturiko ondasunak enpresari eman izana –Udalak berreskuratu behar dituelako eta esleipendunak eginiko inbertsioengatik kalte-ordainik ez ematea.

2016ko urtarrilaren 13an plantaren jarduera bertan behera gelditu zen. Urtarrilaren 19an, konkurtso-administrazioak alde bakarrez emakida-kontratuari uko egiteko erabakia berretsi zuen. Haren ustez, plantaren industria jarduerarekin segitzea bideraezina zen, ikuspegi tekniko eta ekonomikotik, eta segurtasun ikuspegitik ere.

2016ko ekainaren 1eko ebazpen bidez, Udalak, behin betikoz, emakida bertan behera uztea erabaki zuen, Nafarroako Kontseiluaren xehetasunak jasoz.

Hilabete berean, finantza erakunde hartzekodun batek eta Sodenak erabakiaren aurkako beraztertzeko errekurtoa aurkeztu zuten Udaletxean. Udalak bertan behera utzi zuen erabakia, eta interesatuekin elkartu zen.

Konkurto-administrazioak emakida bertan behera uzteko erabakiaren aurkako helegitea aurkeztu zuen Nafarroako Administrazio Epaitegiaren aitzinean. Epaileak, 2016ko azaroan, udalaren aldeko epaia eman zuen.

2016ko apirilean, Industria, Energia eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak emaniko diru-laguntza bueltatzeko eskatu zuen, enpresak ez zuela bost urtez inbertsioaren jabetzari eutsi argudiatuz. Diru-laguntzak gehi interesek 1.054.299 euro egiten zuten.

2016ko irailean, udal osoko bilkurak behin behinean bertan behera utzi zuen zerbitzua udalaren esku uzteko 2008ko urrian harturiko erabakia. 2016ko urrian, osoko bilkurak bertan behera utzitako erabakia aldatu egin zuen, behin behinean minden kudeaketarako sistema mankomunatu martxan jartzeko, plantari loturiko baltsak erabiliz. Baltsa horiek abeltzainen esku utzi ziren.

2016ko abenduko osoko bilkuran Udalak emakida kontratua behin betikoz bertan behera uzteko espedientearen bigarren akordio-proposamena onartu zuen. Udalak Nafarroako Kontseiluaren esku utzi zuen proposamenari buruzko iritzia.

2017ko martxoan, Nafarroako Kontseiluak irizpena jakinarazi zuen. Aurreko proposamena ontzat eman zuen, salbuespen bat nabarmenduz: emakidadunak eginiko inbertsioen balio-galtze funtzionalaren kalkulua.

2017ko urtarrilean, Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa tuak emaniko diru-laguntzen zati bat berreskuratzeko espedienteari ekin zion, inbertsioen iraupena ez betetzeagatik. Eskaturikoa 216.291 euro zen. Zenbatekoa Idazkaritza Tekniko Orokorrak eginiko txosten batean dago oinarrituta. Udalak, 2017ko otsailean, horren aurkako alegazioa aurkeztu zuen. 2017ko martxoan, Departamentuak udalaren alegazioak kontuan ez hartzea erabaki eta eskaturiko dirua gehi 44.159 euroko interesak bueltatzeko agindu zion¹.

4. eranskinean plantaren adjudikazio-prozesuaren laburpena ikus daiteke.

¹ Paragrafo aldatuta, Landa Garapena, Ingurunea eta Toki Administrazio Departamentuko kontseilariak aurkezturiko lehen alegazioa jaso ondoren.

IV. PLANTAN GASTATURIKO FUNTS PUBLIKOEI BURUZKO KONKLUSIOAK

Obra amaierako ziurtagiririk ez dugu. Guk eginiko kalkulua Nafarroako Gobernuari diruz lagunduriko gastua justifikatzeko aurkeztu diren faktura eta ziurtagirietan oinarritzen da (BEZ barne). Agiri horien arabera, plantaren kostua 5.729.509 euro izan da, hurrengo kontzeptuon arabera (3.eranskina):

Plantan gastaturiko zenbateko osoa	5.458.882
Anaerobioak gordetzeko biltegia	2.451.900
Digestio plantaren obra lanak	319.937
Kogenerazio-instalazioa	1.095.700
Fase likidoaren pilatze-zuloak	737.557
Simaurtegi eta urbanizazioen obra lanak	246.766
Zuloen aldaketa	348.915
Bestelako fakturak	258.107
Ingeniaritzak jasotako ordainsariak	270.627
Proiektuaren erredakzioa	200.682
Obra-zuzendaritza	69.945
Kalkulaturiko gastu osoa	5.729.509

Digestio anaerobioko biltegiei loturiko faktura batzuk daude, bi enpresak eginak. Batzuk 965.900 eurokoak (kostuaren %65) eta besteak 1.486.000 eurokoak (biltegien kostu osoa). Lagapen-hartzaileak ordaindu zituen eta haren ibilgetuan kontabilizatu.

Udalak 965.900 euroko fakturak aurkeztu zituen, eta gastuaren justifikaziotzat erabili ziren, landa garapenerako diru-laguntza bat lortu ahal izateko².

1.486.000 eurokoa, berriz, lagapen-hartzailearen eta teknologia emailearen arteko kontratuan daude oinarrituta. Azken horrek biogas plantaren instalazioa eta muntaia egin eta martxan jarrita emateko konpromisoa zuen, "giltza eskura" hornidura kontratutzat. Fakturaren zenbatekoa digestio anaerobioko biltegien prezio bera da. Gastuaren justifikaziotzat aurkeztu zen, industria inbertsioetarako 445.800 euroko diru-laguntza lortzeko. (Inbertsioaren %30).

Beraz, enpresa ezberdinek "digestio anaerobioko biltegiak" izeneko kontzeptu beragatik fakturak egin eta diru kobratu zuten. Biltegien eta urbanizazioaren obra zibilari loturiko 172.937 euroko faktura batzuk ere bikoizturik daude.

Bikoizturik dauden faktura horiek esker, Garapen Ekonomikoa eta Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa Departamentuen diru-laguntzak lortu ziren.

Enpresa esleipendunak, lagapen-hartzaileak eta Udalak fakturazio gurutzatuaren fakturazio sistema antolatu zuten, Udalak diru-laguntza eskatu eta ordainketak justifikatzeko, batere gasturik egin gabe, eta jasotako diru-laguntzak lagapen-hartzailearen esku utziz. Aipatzekoa da lagapena onartu eta egin aurretik hasi zela lagapen-hartzailea udalari fakturak egiten.

Udalak ez du deus gastatu plantaren eraikuntza eta kudeaketan. Gastu bakarra plantaren bahiketak eragindakoa izan da. Udalak berak hasieran eginiko kalkuluaren arabera, horren gastua 78.492 euro izan zen. Gastu kreditu horren zati bat hartzekodunen lehiaketan dago onartua.

Planta eraiki zen lur-sailak eta biltegi-zuloak udalarenak dira.

² Paragrafoa aldatuta, Landa Garapena, Ingurunea eta Toki Administrazio Departamentuko kontseilariak aurkezturiko bigarren alegazioa jaso ondoren.

Plantaren finantziarioari dagokionez, honela egin da:

	Zenbatekoa	Porcentajea
Obraren kostuaren kalkulua, diru-laguntzak jasotzeko aurkezturiko fakturen arabera	5.729.509	
Landa Garapenaren diru-laguntza (1)	1.556.294	27
Industria-inbertsioaren diru-laguntza (2)	906.008	16
Ekonomia eta Lehiakidetasun Ministerioaren mailegua	573.265	10
Finantza-entitateen maileguak	1.800.000	31
Bioenergia Ultzamaren funtsak/bestelakoak (*)	893.942	16
Finantzazioa, guztira	5.729.509	100
Sodenak emandako abalak (**) (3)	818.002	
Funts publikoak, guztira (1+2+3)	3.280.304	57

(*) Bioenergiaren funts propioen kalkulua gainerakoetatik kenketa eginez lortu da.

(**) Finantza-entitateek utzitako 1,8 milioitik, 818.002 euro berreskuratu dute. Horiek ere planta finantza dute funts publikoak dira.

Konklusioa:

Kalkulaturiko gastua 5,7 milioi da. Bikoizturik dauden fakturen zenbatekoa 1,1 milioi da. Beraz, 4,5 milioiko gastua da. Horren zati nagusiak finantzaketa publikoa izan du: Foru Ogasunak plantaren ehuneko 57 finantzatu du, ministerioaren maileguak ehuneko 10 eta Sodenaren ordainketek ehuneko 14.

Ultzamako Udalak ez zuen proiektua finantzatu, ezta obra ere, baldintza-orriei jarraituz. Izan ere, baldintza-orriek zehaztua zutenez, kostua esleipendunak hartuko zuen bere gain; Ultzamako Udalak, bere aldetik, Nafarroako Gobernuak eta gainerako erakunde publikoek emaniko diru-laguntzen zenbatekoa jarriko zuen.

V. UDAL JARDUERAREN LEGEZKOTASUNA

AURKAKO IRITZIAREN AZALPENA

Inguruko abeltzaintza-ustiategietako hondakinen bilketa eta tratamenduaren bidez lorturiko elektrizitate eta gas zerbitzua udal zerbitzu bihurtu izanaz

Toki erakundeek egokitzat jotzen dituzten zerbitzu ekonomiko guztiak eskaini ditzakete, udal zerbitzu bihurtuta, eta beti ere gizarte interesa eta onura publikoa argudiatuz. Horrela bermatzen da ondorengo jarduera guztien legezkotasuna.

Ustiategi pribatu batzuetako minden kudeaketa udal zerbitzu bihurtzeko egokitasuna (eta, beraz, erabilgarritasun eta interés publikoko egiteaa), arrazoiturik dago espedientean, aurreko espedientei aipamena eginez. Funtsean, obraren aurreproiektu eta proiektuaren memoria eta datu ekonomikoak, eta simaurren kudeaketa plana aipatzen dira. Kudeaketa modua lagapena zergatik aukeratzeko den ez dago arrazoitua³.

Obra lanen aurreproiektuaren eta proiektuaren erredakzioa, eta obra lanen zuzendaritza teknikoaren kontratazioa

Lizitatzailen eskaintzak 2007ko martxoko eta uztailakoak dira. Aurreproiektua eta proiektua 2007ko apirilko eta urrikoak dira. Esleipenak 2008ko martxoko eta apirilkoak dira.

Kontratazio espedienteak kontraturiko lanak amaitu ondorengoak dira, eta negoziaturiko prozedura bidez eman ziren. Zenbatekoa kontuan hartuz, prozedura ireki eta publizitadeduna zegoen. Lana egina zegoenez, noski, ez zuen zentzurik.

Esleipen-irizpide bakarra prezioa zen. Esleipendunak gehienezko prezioa eskaini zuen. Beste bi esleipendunek, berriz, gehienezko prezioetik gorako eskaintza egin zuten. Prezioan ez zen obraren zuzendaritza sartzen (125.000 euro), 2008ko uztailako proiektura arte aipatu ere egiten ez baitzen. Proiektuaren erredakzioa jaso zuen esleipenduna arduratu zen zuzendaritza.

2007ko urriko proiektuak plantaren eraikuntza eta ustiapena lortu zituen enpresak eginiko produkzio plantaren eskema biltzen du.

Espedienteak lanak amaitu ondoren egin ziren, aurretik eginiko legez kontrako kontratazioa estaldura formala emateko. Izan ere, aipaturiko kontratazioa udalak egin zuen, prozedura alde batera utziz eta kontratazio publikoaren oinarritzko irizpideei muzin eginez: publizitatea, gardentasuna, tratu berdintasuna eta inor ez baztertzeko beharra⁴.

Obra publikoaren emakida-kontratuaz eta abeltzaintzako minda, gas eta elektrizitatearen ekoizpen eta minda biltzeko bost baltsen ustiapenez; eta emakidaren ondorengo lagapenez

Baldintza-orriak ez ditu zehazten esleipendunari eskatu beharreko kaudimen ekonomiko eta teknikoaren gutxienezko irizpideak, ezta kontratu honetan haiek baloratzeko irizpideak ere.

Lizitazioa kontratazioaren portalean argitaratu zen. Baldintza administratibo partikularren plegua erantsi zen, baina ez baldintza tekniko partikularren plegua, ez proiektua eta ez kontratuaren izaera deskribatzen duen gainerako dokumentazioa. Eskaintzak aurkezteko epea 18 egunekoa izan zen, alegia, Kontratuen Foru Legeak onartzen duen gutxienezkoa.

Bi eskaintza jaso ziren, eduki tekniko oso ezberdinekoak. Kontratua lortu zuenarena oso zabalagoa zen eta baldintza-orrien xehetasun guztiak betetzen zituen. Beste lizitatzailarena, berriz, oso oinarritzkoa zen, argitu beharreko (eta zenbaitetan berriro egin beharreko) kontu tekniko eta ekonomiko sorta bat baitu. Horietako asko plantaren bizialdian berriro aintzakotzat hartzen dira: bestelako hondakinak erabili beharra, minden ezaugarrien arabera arriskuak instalazioetarako, eskainiriko motorren mantentze zaila, motorrek sorturiko beroa inguruko beste produkzio jardueretan erabiltzeko aukera, baskula baten beharra.

³ Paragrafoa aldatua, Ultzamako alkate ohi Francisco Perez Arregik aurkezturiko alegazioaren ondorioz.

⁴ Paragrafoa aldatua, Ultzamako alkate ohi Francisco Perez Arregik aurkezturiko alegazioaren ondorioz.

Bi eskaintzak ikusita argi dago bi lizitatuzaileek erabilitako informazioa oso ezberdina dela, agian lizitazio-iragarkian dokumentazio oso eskasa eskaini zelako. Horrek konkurrentzia eta lehiaketa librearen irizpideak murriztu egin zituen.

Lizitatuzaileen kaudimen-ziurtagiria ere ezberdina zen. Esleipendunak kogenerazio elektriko eta termiko lanen ziurtagiriak aurkeztu zituen. Beste lizitatuzailearen xedea zen jatorri biologikoko energi iturri berriztagarrietan oinarrituriko produkzio plantak bultzatu, kudeatu eta ustiatzea. Esperientzia frogatzeko proiektuaren antzeko plantak eta erregai-plantak aipatzen ditu. Sozietatearen kapitala 1,8 milioi da. Esleipendunaren kapitala, berriz, 123.171 euro zen.

Esleipendunaren errekurtsoak inbertsioaren aurrekontuaren ehuneko 20tik beherakoak ziren eta, beraz, ez zen betetzen baldintza-orriek agindurikoa

Kontratazio mahaiko bi kide proiektua egin zuen ingeniari enpresako ordezkariak ziren. Enpresa horrek esleipendunak eginiko eskema batzuk sartu zituen proiektuan eta, gainera, emakida edo kontzentsioa hartu zuen enpresa berriaren kapitalean edo enpresa organoetan parte hartu zuen.

Enpresak ez zuen behin betiko bermea aurkeztu, eta hori bera kontratua bertan behera uzteko arrazoa da. Erantzukizun zibil-polizari ere ez dago⁵.

Baldintza-orrien arabera, esleipendunak lizitazio eskaintzaren araberako osaketarekin sortu behar zuen sozietate berria. Beraz, enpresa berriaren bultzatuzaileen zerrenda zehaztu beharra zegoen, ezaugarri juridikoak, ekonomiko eta finantzarioak, bultzatuzaile guztiek sinaturik. Udalarekin sinatu beharreko emakida esleipendunaren legezko ordezkariak egin behar zuten; eta esleipendunaren xede soziala lagapenaren helburura mugatu beharra zegoen: lagapenaren instalazioen eraikuntza eta ustiapena. Aurreikuspen horiek ez ziren bete. Baldintza-orriek zehazturikoari muzin eginez, udalak hirugarren baten esku utzi zuen esleipena, eta lagatuzaile eta hartatuzailearekin kontratua sinatu zuen.

Beraz, enpresa esleipenduna osatu beharrean, baldintza orriek eta lizitatuzailearen eskaintzak aurreikusia zuten bezala, emakida hirugarren bati eman zitzaion, beti ere Udalaren oniritziarekin.

Udala ez zen lagapena hartu zuen enpresako kidea, esleipendunaren eskaintzak horixe aurreikusi bazuen ere. Kasu honetan, udalak harturiko zerbitzua izanik, merkataritza sozietate mistoa litzateke obra publikoa kudeatzeko hobesten den sozietate mota, kooperatibarekin batera.

Ez dago zuinketa frogatzeko aktarik, eta ez obra hasierako eta obra amaierako aktarik ere.

Eskaintzak azpi kontratazioaz zioena alde batera utzirik, ez dago esleipendunak eginiko azpi kontratazioen jakinarazpenik. Kontratuen Foru Legeak arautzen ditu kontratu horiek prestatze eta adjudikazio prozesua.

Publizitatea eta lehiaketa librearen irizpideak murrizturik gelditu ziren: batetik, kontratazio portalean erantsitako informazioa eskasa zelako; bestetik, esleipendunaren eta proiektuaren egilearen arteko harremanengatik, azken hori kontratazio mahiko kidea baitzen. Honek guztiak kontratazio publikoaren irizpideen aurkako prozedura islatzen du, legeak aginduriko prozeduraren oinarriko kontuak ez baitziren aintzakotzat hartu.

⁵ Parafrafoa aldatuta, Ultzamako Udalak aurkezturiko alegazioak jaso ondoren.

EMAKIDA KONTRATUAREN BAHIKETAZ ETA BERTAN BEHERA UTZI IZANAZ

Bioenergiak hartzekodunen konkurtsoa eskatu eta 2014ko apirileko epailearen autoak onartu eta enpresak jardueraren amaieraren berri eman zuen. Horren aitzinean, 2014ko azaroan, osoko bilkurak emakidaren bahiketa onartu zuen, txosten juridiko batzuetan oinarrituta. Ordurako enpresa esleipenduna deuseztatuta zegoen, urriaren 9ko auto batek konkurtsoaren likidazioa onartu baitzuen.

Bahiketaren kariatara plantaren egoeraz eginiko txosten teknikoan arabera, instalazioak guztiz abandonaturik zeuden.

Enpresa esleipendunaren arazoa ez zen aldi baterakoa, eta horixe da bahiketak eskatzen duena. Beraz, kontratu legeari jarraituz, egokiagoa zatekeen emakida bertan behera uztea, konkurtsoaren likidazioaren hasieratik beretik.

2015eko abenduan, Udalak bahiketaren amaiera eta emakida bertan behera uzteko lehen erabakia hartu zuen. Aktiboak enpresa emakidadunari uztea onartu zuen. Enpresak eginiko inbertsioengatik haren aldeko ordain-saririk ez ematea ere erabaki zuen; bai, ordea, Udalarari eragindako kalte-galerengatik erreklamazioa egitea, kontratua ez betetzeagatik.

Konkurtsu administrazioak, finantza entitate batek eta Sodenak emakida bertan behera utzi zuen kontratuaren aurkako alegazioa aurkeztu zuten. Kontratu legeari jarraituz, Nafarroako Kontseiluari iritzia eskatu zitzaion. Txostenak Udalaren erabakia zuzendu egin zuen:

“Minden bilketaren zerbitzu publikoari loturiko ondasunak publikoak dira eta, beraz, bestere-nezinak. Ez da onargarria deus ordaindu gabeko lagapena. Hortaz, Udalak berreskuratu behar ditu.

Ordenamendu juridikoaren aurkakoa da, halaber, eginiko inbertsioengatik kalte-ordainik ez ematea. Udalak, konkurtso administrazioari eta hirugarren interesatuei entzun ondoren, emakidadunak jaso lezakeen likidazioa kalkulatu behar du. Horretarako, egungo instalazioen mantentze eta zaintze egoera, erabilpena eta amortizazioa aztertu behar ditu, emakidadunari interes publikoari eginiko kalte-galerengatik eskatzen ahal zaizkion zenbatekoak kenduta”.

2016ko ekainaren 1ean, osoko bilkurak emakida-kontratua behin betiko bertan behera uztea erabaki zuen, aipaturiko irizpenaren xehetasunak jasoz. Konkurtso Administrazioak erabakiaren aurkako errekurtsua aurkeztu zuen Nafarroako Administrazio Epaitegiaren aitzinean. Epaitegiak ez zuen onartu eta aktiboen balorazio data emakida bertan behera uzteko eguna zela ebatzi zuen eta ez bahiketaren hasierakoa, errekurtsogileak nahi zuen bezala.

Finantza entitate batek eta abala aurkeztua zuen sozietate publikoak udal erabakiaren aurkako berraztertze errekurtsua aurkeztu zuten. Defentsa-gabezia argudiatu zuten, behin betiko onarpenaren aitzinean ez zitzaielako entzun. Beren asmoa zen aktiboen balorazioen zenbatekoa banatzean finantza entitate hartzekodunek lehentasuna izatea. Konkurtso Administrazioak ezezkoa eman zuen.

Udalak defentsa-gabezia beste alegaziorik ez zuen onartu. Hortaz, emakida bertan behera uzteko erabakia deuseztatu eta audientzia-tramitea zabaldu zuen.

Laburbilduz: prozedurari dagokionez, interesatuendako audientzia-tramitea ez zen kontuan hartu, eta akats hori ondorengo tramitazioan konpondu zen. Nafarroako Kontseiluak emakida bertan behera uzteko Udalarari harturiko lehen erabakiaren aurka egin zuen, funtsezko gaietan, eta ondoren zuzendu behar izan zen.

2016ko abenduan, osoko bilkurak emakida kontratua behin betikoz bertan behera uzteko akordio proposamenaren bigarren erabakia. Proposamena Nafarroako Kontseiluaren esku utzi zuen.

2017ko martxoan, Nafarroako Kontseiluak bere irizpena jakinarazi zuen, kontratua bertan behera uzteak zekartzan ondorio ekonomikoak zehaztuz:

Udalak eginiko inbertsioen zenbatekoa ordaindu behar dio emakidadunari, ondorengo kontuan hartuz: emakida amaitzeko falta den denboraren arabera amortizazio maila, eraikinaren

balio-galtzea eta materialena, balorazio data 2016ko ekainaren 1ean kontuan hartuz, orduantxe hartu baitzen, behin betikoz, emakida kontratua bertan behera uzteko erabakia.

Zenbatekoari balio-galtze funtzionala kendu behar zaio, zaintze, mantentze eta erabilpen egoera desegokia kontuan hartuz; edo, bestela, instalazioen bizialdiaren arabera beharrezkoak diren inbertsioen zenbatekoa deskontatuz.

Azkenik, udalak interes publikoari eragindako kalte-galeren deskontua eginen du aktiboen balioetik. Horien artean daude udalak jaso eta emakidadunari emaniko diru-laguntzak, beti ere harturiko finantzatik gorakoak diren neurrian.

Azken saldoa ez da erabiliko hipoteken hartzekodunei zuzenean ordaintzeko. Konkurtso administrazioaren eskura jarriko da, konkurtsoaren aktibo eta pasiboen funtsetan sartzeko.

Nafarroako Kontseiluaren irizpena ezagututa, Udalak emakida kontratua bertan behera uzteko behin betiko erabakia hartu behar du, aipaturiko xehetasunak kontuan hartuz.

Prozesuaren bestelako kontuak

Jarduera sailkatuen udal lizentziak. Jarduera sailkatuen bi lizentzia eman ziren. Lehenbizikoa 2008ko ekainean, 2009ko ekainean aldatua, emakidaren lagapenagatik transmititzeko. Bigarrena 2014ko maiatzean, proiektua nabarmen aldatu baitzen.

Espedienteak aztertuta, tramite, publizitate eta jakinarazpen pertsonalak bete egin zirela ondorioztatzen da. Araudiak eskaturiko txosten sektorialak jasota daude.

Udal zabaltze lizentzia. 2010eko ekainean eskatu zen, obraren amaierako ziurtagiria aurkeztuta. Jarduera sailkatuaren aldaketara baldintzatuta, udalak 2014ko maiatzean eman zuen. Behin aldaketa eginda, 2015eko otsailean eskatu eta maiatzean onartu zen. Beraz, 2010eko erdialdetik 2015eko otsailera bitartean planta "tramitatzen" ari zen lizentziarekin aritu zen.

Udal jardueraren legezketasuna: aurkako iritzia

"Aurkako iritziaren arrazoiak" paragrafoetan zehazturiko lege-hausteen garrantzia kontuan hartuz, hona hemen gure iritzia: aurreproiektuaren eta proiektuaren kontratazioa, obra zuzendaritza eta plantako obraren kontratazioa, ondorengo lagapena eta eginiko azpikontratazioak ez datoz bat indarrean dagoen araudiarekin.

VI. FORU ADMINISTRAZIOAREN JARDUERAREN LEGEZKOTASUNARI BURUZKO IRITZIA

Foru Administrazioak planta bultzatu egin zuen, diru-laguntzak eta abalak emanaz, eta kontrol jarduera ere eginez: prebentzio-kontrola, baimenez bitartez, eta zigorrak jarritz, araudia bete ez denean.

Legezketasunari buruzko iritzia

Gure iritziz, diru-laguntzen, abalen, baimenen ematea, eta ingurune arloko isunen ezarpena, orokorrean, aplikatzekoa den araudiaren arabera egin dira.

Diru-laguntzei dagokienez, emate eta justifikazioa dagozkion departamentuetan egin zen, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

Kontuan hartzekoa da industria inbertsioetarako diru-laguntzak bateragarriak direla beste edozeinekin, beti ere diruz lagundutako kostuak diferenteak baldin badira. Gure iritziz, eskakizun hori ez da bete digestio anaerobioko biltegietan. Izan ere, Landa Garapena eta Ingurumena Departamentuak kostuaren ehuneko 60 finantzatua zuen; biltegietako obra zibilaren zati baten ere berdin gertatzen da, aipaturiko departamentuak laguntza emana baitzuen⁶.

Hau dela eta, baliteke proiektuan gain finantziazioa izatea.

Industria inbertsioetarako diru-laguntzen deialdian bada 2008ko irailaren 26ko adierazpen bat, sortzen ari zen enpresa lagapen-hartzailearen izenean egina, bestelako diru-laguntzarik eskatu ez dela dioena. Hala ere, lagapen hartzaileak kobratu egiten ditu Landa Garapena Departamentuak Udalari emaniko diru-laguntzak. Departamentuak Udalari emaniko lehen diru-laguntza 2008ko irailaren 1ean onartu zen.

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ESPEDIENTEEI DAGOKIENEZ

- Industria Inbertsioetarako diru-laguntzak (Garapen Ekonomikoa Departamentua)

Udalak eskatu zuen 2008ko irailean, "sortzen ari zen sozietate" baten izenean. 2010eko uztai-lean 906.008 euroko diru-laguntza eman zion, aurreko inbertsioetarako diru-laguntzetan deus jaso ez zuten eskariak onartzea aurreikusten zuen foru aginduaren babespean.

Espedientea egin zuen organoak dokumentazio asko eskatu zuen tramite-garaian. Proiektuaren eranskinak ere egin behar izan ziren. Organo bideratzaileak, oro har, deialdiaren oinarriak betetzen zirela egiaztatu zuen. Diruz lagunduriko gastuaren justifikazioa frogatu zen, faktura eta ziurtagirien bidez; sozietateak gastu horiek kontabilizatu eta ordaindu zituela ere frogatu zen.

- Tokiko abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko laguntzak (Landa Garapena eta Ingurumena Departamentua)

Espedienteek oinarrietan eskaturiko informazio osoa jasotzen dute. Balorazio batzordeak eskaera aztertu zuen, deialdiak finkaturiko baremoan kontuan hartuz, eta akta egin zen. Gastua jatorrizko faktura edo obra-ziurtagiriekin justifikatu zen, Departamentuak berak zigilatua. Teknikari batek frogatu zuenez, ziurtaturiko obra lur-eremuan eginiko neurketekin bat zetorren.

1.556.294 euroko diru-laguntzak eman ziren.

Sodenak emaniko abalak

Nafarroako Gobernuak Nafincori (Sodena, gaur egun) baimena eman zion abal lerro bat zabal zezan, Nafarroako ekonomia berpizteko neurriei buruzko 18/2008 Foru Legearen babespean. Ekonomia eta Ogasuna kontseilariaren esku utzi zuen prozedura eta kudeaketa kontuak arautzea. Aztertutako espedienteetan bete egin dira xehetasun horiek.

⁶ Paragrafoa aldatuta, Landa Garapena Ingurunea eta Toki Administrazio Departamentuko kontsilariak aurreko zuzenbideko arauak jaso ondoren.

BAIMEN ETA ZIGORRAK

Plantaren eraikuntza eta kudeaketa prozesuan foru administrazioak ekimen asko egin ditu proiektuak ingurumenari buruzko araudia edo aplikatzekoak ziren beste batzuk bete zirela frogatzeko. Horren adibidea da Landa Garapena eta Ingurumena Departamentuaren aginduz plantaren proiektuari zazpi eranskin egin zitzaizkiola, departamentuak eginiko eskaerak jasotzeko.

Ingurumen Baimen Integratua. 2013ko ekaineko lege aldaketa baten ondorioz sartua. Udalak eskatu zuen, 2015eko martxoan, Ingurumen Kalitatea Zerbitzuaren aitzinean. Dokumentazio eskakizun batzuk egin ondoren, aipaturiko zerbitzuak, 2016ko apirilean, prozeduraren epea amaitua zegoela adierazi zuen.

Bioenergia Ultzama Ingurumena Kalitateari eskaturiko beste baimenak. 2011n Sozietatea hondakin arriskutsuen ekoizle txikien zerrendan erregistratu zen. Urte berean, giza kontsumora bideratzen ez diren animalien azpiproduktuen erregistroan sartu zen. 2012ko irailean plantan lan daitezkeen hondakinen zerrenda handitzea lortu zuen. 2012ko azaroan, berriz, hondakin ez arriskutsuen kudeatzaile izateko baimena jaso zuen.

Ingurumen arloko isunak. Plantak zabalik iraun zuen bitartean, haren aurkako zigor-ekimen batzuk martxan jarri ziren. 2012, 2014 eta 2015ekoak dira. Prozesuen hasiera eragin zituen arrazoiak ezberdinak dira: digestatza eguraldi ez aproposa zegoelarik lurtean zabaltzea; minden baltsek gainezka egitea; edo digestatza edo ur zikinak erreketara botatzea. Hutsegite arintzat hartu ziren batzuk; beste batzuk artxibatu egin ziren, froga faltagatik.

VII. AZPIEGITURAREN EGOERA ETA HORREK ULTZAMAKO UDALARI ERAGIN DIEZAIOSKEENA

Ikuspegi juridikotik, emakida kontratua bertan behera uzteko udal akordioa falta da. Akordioak Nafarroako Kontseiluaren 2017ko martxoko irizpenaren xehetasunak jaso beharko ditu.

Horregatik, Udalak aktiboen gaur egungo balioa zenbatu behar du, zaintze egoera eta amortizazioa ez ezik, interes publikoari eragindako kalte-galerak ere kontuan hartuz. Udalak, 2016ko ekainean, ingeniartzako enpresako aholkulari bat kontratatu zuen balorazio horiek egiteko. Lana egin gabe dago oraindik.

Behin betiko akordioa hau eginda, amaitutzat eman daiteke hartzekodunen konkurtsoa.

Ikuspegi materialetik begiratuta, hartzekodunen konkurtsoa egin zenetik udalak eskatu dituen txosten guztiak bat datoz: planta abandonatuta dago, metalezko elementuetan korrosio orokorra dago eta plantako prozesuetan funtsezkoak diren elementuetan matxura eta pitzadura asko dago (7. eranskina). Txosten horien arabera, planta berriro martxan jartzeko inbertsioa milioi bat euro-raino hel daiteke eta, hala ere, horrek ez luke plantaren funtzionamendu egokia ziurtatuko (5. eranskina).

Planta zergatik itxi zen jakiteko bideragarritasun txostenak 2015eko produkzio, fakturazio eta gastuekin alderatu ditugu. Hona hemen gure konklusioa:

Gastuak, orokorrean, aurreikusitakoak baino handiagoak izan ziren, bai ustiapen gastuak nola finantzarioak. Horietako batzuk (baltsen alokairua edo digestatua ateratzekoak) ez ziren aurreikusi. Garraio, digestatua ekoizpena eta minden bilketa uste baino handiagoak izan ziren.

Diru-sarrerak aurreikusitakoak baino txikiagoak izan ziren. Elektrizitatearen ekoizpena uste baino murriztagoa izan zen, eta hura saltzeko prezioa ere hasieran uste baino txikiagoa izan zen. Lurrunaren salmentarekin ere berdin gertatu zen. Abeltzainei kobraturiko prezioak ere aurreikusitakoak baino murriztagoak izan ziren, eta minden eta digestatua garraioaren kostura ere ez ziren heltzen.

“Plantaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterketa” izeneko txostenak ere antzeko konklusioak jasotzen ditu. Txosten hori ingeniartzako enpresa aholkulari batek egin zuen, 2014ko irailean, udalak eskatuta, hartzekodunen konkurtsoa eskatu zelarik.

Laburbilduz:

Funts publikoetatik ateratako 3,2 milioi gastatu dira biogas planta bat eraikitzeke. Hiru urte eta zazpi hilabete iraun zuen lanean modu autonomoan, eta beste hamalau hilabete udalak bahituta. Gaur egun, guztiz egoera prekarioan dagoen planta bat dago; esleipena hartu zuen enpresa deseginda dago, hartzekodunen konkurtsoan. Zerbitzuaren emakida bera hipotekaturik dago, eta Udalaren ondarea arriskuan egon daiteke emakida kontratua bertan behera uzteagatik.

Abeltzainek minden kudeaketarekin duten arazoa inbertsioa egin aurrekoaren oso antzekoa da. 2007an 3.288 behi zituzten 33 ustiategi bildu ziren elkarlaneko kudeaketara; horietako 27k arazoak zituzten minden kudeaketan. Bada, gaur 3.659 behi dituzten 24 ustiategi daude hondakin kudeatzaile berriaren bila dabilzanak. (6. eranskina).

VIII. GOMENDIOAK

Kontuen Ganberak, txostenaren emaitza ikusita, gomendio bat nabarmendu nahi du berriro ere: onura publiko eta interes orokorreko proiektuak behar bezala pentsatu, burutu eta kudeatu behar dira, indarrean dagoen legedia betez. Hasteko, proiektu eta bideragarritasun plan zehatz eta sakonak egin behar dira; ondoren, emaniko kontratuen kontrol eta jarraipen egokia behar da, txosten honetan aipaturikoen antzekoak gerta ez daitezzen.

Horrez gain, eta egoera noraino heldu den kontuan hartuz, proiektuarekin zer ikusia duten administrazio publikoek (Ultzamako Udalak, batez ere, bultzatzaile eta kudeatzailea baita) egungo egoera gainditzeko moduz hausnarketa egin behar dute. Eta hain zuzen, minden kudeaketaren soluzioa zein izan daitekeen pentsatu. Izan ere, horixe izan zen diru publikotik hiru milioiko kostua izan duen azpiegitura honen helburua.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Francisco José Etayo Salazar auditore jaunak proposatuta, bera izan baita honen arduraduna.

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA. ULTZAMA BIOGAS PLANTAREN ERAIKUNTZA-PROIEKTUAK

Dokumentua	Dokumentuaren data	Esleipen data	Zenbatekoa
Aurreproiektua	2007ko apirila	2008/4/24	37.500
Proiektua	2007ko urria	2008/04/24	87.500
Modificaciones del proyecto			
I. eranskina	2007ko abendua	Ingurumena dep-k eskatua J.S. lizentzia	
II. eranskina	2007ko abendua	Udaleku hirigintza eskatua	
Orokietako hobiaren proiektua	2008ko otsaila	Ingurumena dep-ak eskatua J.S. lizentzia	
III. eranskina	2008ko martxoa	Landa Garapenak eta Ingurumena kalitateak eskatua	
Proiektua	2008ko ekaina		
IV. eranskina	2008ko uztaila	Abeltzaintzako Azpiegituren Laguntza sailak eskatua	
I. eranskina Proyecto Fosa Orokieta	20010eko martxoa		
TAA 2009	2010eko iraila	Abeltzaintzako azpiegituren sailak eskatua	
TAG 2010	2010eko iraila	Nekazaritzako azpiegituren sailak eskatua	

(*)Proiektua eta lehen, bigarren eta hirugarren eranskinek osatzen dute lizitatu beharreko obrak (Pleguaren Baldintza partzialen lehen klausula

Eranskinetan Foru Administrazioak edo Udalak eginiko eskaerei erantzuten zaie, honako gaien inguruan: makineriaren edo instalazioen datu teknikoak, hondakin edo hirigintza kudeaketa edo tokiko abeltzaintzako laguntzak hartzeko informazio osagarria.

2008ko ekaineko proiektua berria da, aurrekoak biltzen dituena. Foru Administrazioak eskatua egin zen, Industria eta Landa Garapena departamentuen diru-laguntzak eskuratzeko.

4. eranskinak aldatutako aurrekontua jasotzen du, obraren esleipenerako oinarria. 2007ko abendukoarekin alderatuz, 881.137 euroan garestitu zen, BEZ barne. 250.000 euroko zenbatekoa jasotzen du proiektua egiteagatik eta obra zuzendaritzagatik.

Orokietako bilketa-hobiaren proiektuarekin Basaburuko herrian hobi bat martxan jartzeko beharri erantzuten zaio, jarduera lizentzia emateko eskatua. 2010eko martxoan eranskina egin zen, hobien kokapen eta bolumena aldatu baitziren, horien artean Orokietakoa. Eranskina, berez, proiektu berria da.

19 2. ERANSKINA. PLANTA



Plantako instalazioak:

- Minda gordina jasotzeko biltegia.
- Homogeneizagailua eta aurre beroketatao.
- Zilindro formako bi digestore, 3.300 m³ bolumena dutenak
- Biogasa motoretarra bultzatzeko bonben etxola.
- Energia elektrikoa sortzeko lau motor, orduko 125 kilowatio-koak.
- Digestio prozesutik sorturiko digestato gordina jasotzeko biltegia.
- Digestato gordina fasetan banatzeko gailua.
- Simaurtegi estalia, 45 x 4 metro kubikoa, fase solidoaren biltegi.
- 45x40x4m³ko baltsa, estalki moldagarriarekin, fase likidoaren biltegi.
- Emergentziatzko argia-zuzia.

PROZESUAK

1. Minden bilketa. Bertako enpresa batek egiten du, kontratu bidez. Bi zisterna-kamioik bildu eta zentralera eramaten dituzte. Harrera biltegian deskargatu, homogeneizatu eta minden aurre beroketa egiten da. Eguneko 220 m³ minda sartzen da zentralean.
2. Digestio anaerobioa. Minden hartidura digestoretan egiten da, kontrolaturiko tenperaturan. Digestoretan, bataz beste, 39/42 egun ematen dituzte. Sorturiko biogasa metanok, monok eta karbono dioxidok osaturikoa da. Plantak urteko 80.000 m³ prozesatzeko ahalmena dauka.
3. Zatiak bereiztea. Aurreko prozesutik sorturiko digestatua bitan bereizten da -solido eta likidoa- eta bereizirik biltzen da.

Energia elektrikoa. Hartiduran sorturiko biogasak energia elektrikoa sortzen duten lau motor elikatzen ditu. Horietako bat plantan dago, eta haren produkzioaren zati bat hortxe bertan berrerabiltzen da. Gainerakoetatik bat ondoko Elordi industrialdean dago (500 m) eta sorturiko energia banaketa sarrera bidaltzen da.

4. Kogenerazioa. Motorretako batek sorturiko beroa planta bereko prozesuetan berrerabiltzen da. Gainerako hirurek, elektrizitateaz gain, beroa ere sortzen dute. Dauden tokiko enpresak berak erosten du.

5. Abeltzaintzako hondakinen kudeaketa.

Likidoa. Hormigoi armatuko bost baltsa daude, 4 metroko sakonera dutenak. Minda ematen duten abeltzaintza-ustiapenetan daude banaturik. Honako ezaugarriak dituzte.

Kontrataturiko enpresak egiten ditu baltsetarako garraioa, izulerak baliatuz. Beraz, ez dute zamarik gabe lan egiten. Ustiapen bakoitzak larrak ongarritu egiten ditu, bi sistema erabiliz:

- a) Abeltzainak erabili behar duen lur eremutik hurbilen duen baltsatik kentzen du materiala, proiektua egin aurretik zituen tresna propioak erabiliz.
- b) Enpresak egiten du, zintzilikaturiko hobiak dituzten 20 m³ko bi zisternarekin. Ondoren, abeltzainei kobratzen die faktura.


Solidoa. Ontziratua gabe biltzen da, plantako biltegi estalpedunean. Abeltzainek, ongarriztat erabiltzeko, banaketa tresna propioetan biltzen dute. Besteei ere saldu egiten zaie, biltegitik beretik.



21 3. ERANSKINA. AURREKONTUAREN ETA JUSTIFIKATURIKO INBERTSIOAREN KONPARAZIOA

	2008KO UZTAILEKO OBRAREN AURREKONTUA		Justifikaturiko fakturen diru-laguntzak			% aldaketa
	Aurrekontua (BEZ gabe)		Nekazaritza	Industria	Guztira	
Kapitulu 1 fase I						
01.01 azpi kapitulua	1.486.000	Atxikitze anaerobioaren biltegiak	965.900	1.486.000	2.451.900	65
01.02 azpi kapitulua	429.147	Digestio plantaren obra zibila	172.770	147.167	319.937	-25,45
Kapitulu 1 fase I guztira	1.915.147		1.138.670	1.633.167	2.771.837	44,73
Kapitulu 2 Fase II						
02.01 azpi kapitulua	1.014.000	Kogenerazio-instalazioa		1.095.700	1.095.700	8,06
02.02 azpi kapitulua	737.557	Digestoaren fase likidoaren biltegi-hobiak	737.557	0	737.557	0,00
	348.570	Hobien aldaketa	348.915		348.915	0,10
02.03 azpi kapitulua	246.766	Obra zibila (simautegi eta urbanizazioa)	246.766		246.766	0,00
Kapitulu 2 fase II guztira	2.346.892		1.333.238	1.095.700	2.428.938	3,5
Kontratuaren aurrekontu osoa	4.262.039		2.471.908	2.728.867	5.200.775	22,03
Proiektua egitea	125.000		138.682	62.000	200.682	60,55
Obraren zuzendaritza	125.000		63.682	6.263	69.945	-44,04
Ingeniaritzaren ordain sariak guztira	250.000		202.364	68.263	270.627	8,25
Administrazioari jakinarazitako aurrekontu osoa	4.512.039		2.674.272	2.797.130	5.471.402	21,26
Beste fakturak				258.107	258.107	
Aurkezturiko faktura guztiak				3.055.237	5.729.509	

4. ERANSKINA. ULTZAMAKO BIOMETANIZAZIO PLANTAREN ADJUDIKAZIO PROZESUAREN ESKEMA



5. ERANSKINA. BAHIKETAREN HASIERAN EGIN BEHARREKO KONPONKETA LANEN BALORAZIO EKONOMIKOA

Kapitulua		
1	Leku komunen garbiketa	27.600
2	Tailerra, control aretoa eta kable-sarea	70.050
3	Elektrizitatea sortzeko eraikina eta beroketa	24.225
4	1. ponpaketa aretoa	15.585
5	2. ponpaketa aretoa	12.950
6	Argi-zuria	900
7	Biogasa kudeatzeko edukiontzia	18.020
8	Homogeneizatzailea	65.620
9	Mindak sartzeko hobia	30.045
10	Sarrerako hobi txikia	4.550
11	Solidoak banatzekoa, digestatua ateratzeko hobia eta solidoak biltzeko tokia	193.010
12	Digestoreak	33.590
13	Digestato-baltsa	22.050
14	Kogenerazio plantako instalazioak	125.075
15	Pilaketarako baltsa eta hobiak	36.800
16	Martxan jartzea eta mantentzea	46.640
17	Jardueran lortu gabeko irabazia	182.500
Planta konpontzeak dakarren gastuaren kalkulua		909.210

(*) Lortu gabeko irabazia izeneko kontzeptua plantaren jatorrizko egoerara bueltatzeko egin beharreko lanei dagokie: 2012ko diru-sarrera eta gastuak, plantaren gaur egungo jarduerarako.

Egin beharreko konponketa nagusiak

Kapitulua		
2	Plantaren kontrolerako sistema informatikoa berriro martxan jartzea	60.000
3	Sorgailuaren aldaketa	19.250
7	Gasen neurgailuaren eta alarma sistemaren aldaketa	13.820
8	Eraikina erabiltzeko baldintzak bermatu, kalteturiko kable-sistemaren aldaketa	31.200
9	Eraikina erabiltzeko baldintzak bermatu	21.200
11	Eraikina erabiltzeko baldintzak bermatu. Hobiaren garbiketa eta kutsadura kendu	19.200
11	Fasen banatzailea aldatu eta <i>bypassa</i> kendu	35.700
11	Metalezko elementu herdoilduak aldatu edo konpondu	38.900
11	Metalezko estalkiaren %75 aldatu	58.560
11	Solidoen zona moldatu, hormatik sartzen diren isurkiak saihesteko	29.600
12	Digestoreetako bi irabiagailu aldatu	17.200
13	Digestato-baltsa erabiltzeko baldintzetara bueltatu	14.200
14	Bi motor martxan jarri. 3. motorra konpondu	49.275
14	Galdara eta kontrol hoditeria eta elementuen konponketa	58.450
15	Baltsen eta metatze hobien baldintza bermatu	36.800
16	Zabaltze lizentzia lortzeko egin beharreko obra lanak	10.640
16	Gutxieneko ordezkoko piezen eta lanabesen biltegia	25.000
		538.995

6. ERANSKINA. BIOENERGIA ULTZAMAK 2015eko ABENDUAREN 31n KUDEATZEN ZITUEN SIMAURTEGI PLANAK

Plan			ALBak
0840010776/2/2	Oiloak	Etxarri-Aranatz	(1)
0170120019/1/2	Esne behiak	Aritzu - Anue	213
2360120120/1/2	Esne behiak	Iraitzoz - Ultzama	156,7
2360010104/1/2	Esne behiak	Gorrontz-Olano	169,7
2360090043/1/2	Esne behiak	Arraitz - Ultzama	163,5
2360090029/1/2	Esne behiak	Arraitz - Ultzama	64
2360090107/1/2	Esne behiak	Arraitz - Ultzama	146,2
2360090063/2/2	Esne behiak	Arraitz - Ultzama	116,4
2360150245/1/2	Esne behiak	Suarbe-Ultzama	49
2360140044/1/2	Esne behiak	Auza-Ultzama	222
2360063034/1/2	Esne behiak	Eltso - Ultzama	109,4
0490060185/1/2	Esne behiak	Gartzaron-Basaburua	56,9
2360140031/1/3	Esne behiak	Auza-Ultzama	232,6
0490060015/1/2	Esne behiak	Gartzaron-Basaburua	54,3
0490010084/2/2	Esne behiak	Udabe-Basaburua	185
0490010024/1/2	Esne behiak	Udabe-Basaburua	232,2
2360073005/2/2	Esne ardiak	Urrizola-Ultzama	93,5
2360150262/2/2	Esne behiak	Suarbe-Ultzama	61,2
2360073063/1/4	Esne behiak	Urrizola - Ultzama	532
2360073063/2/3	Esne behiak	Urrizola - Ultzama	199,5
1860050078/3/2	Esne behiak	Ripa - Odieta	226,1
2360023062/2/2			(2)
2360013035/4/3	Esne behiak	Gorrontz-Olano	312,8
2360090065/1/2	Esne behiak	Arraitz - Ultzama	63,4
			3.659,40

(1) Oilo-zirinaren zati bat Bioenergia Ultzamari ematen zion.

(2) Azienda 2360073063/1/4 planaren barnean dago.

148/2003 Foru Dekretuaren arabera, umetarako behiak azienda larri buru baten balioa du; eta umetarako ardiak azienda larriaren 0,15 da.

Dekretu berak dioenez, behi eta ardi ustiapenak edukiera handikoak dira baldin eta azienda larri buruak 60tik gora badira. Beraz, hiru izan ezik, gainerako ustiapenak edukiera handikoak dira.

7. ERANSKINA. BIOENERGIA PLANTAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENEN LABURPENA

1. 2014ko iraileko txostena, "plantaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaz". Ingeniari-tza enpresa aholkulari batek egin zuen, udalak eskaturik, hartzekodunen konkurtoa egin zelarik. Plantaren egoeraz honakoa erran zuen:

- Biometanizazio tratamendu amaierako digestatoan faseen bereizgarri zentrifugoa matxuratu.
- Metalezko elementuak, korrosio zantzuekin. Konpondu eta babestu egin behar dira edo, bestela, aldatu. Torloju-multzoan eta digestatoko kanpoko kanalizazioan du eragina; digestato solidoa biltzeko tokiko metalezko estalkian ere korrosioa dago, metalezko elementuetan.
- Planta mankomunatua osatzen duten azpiegituretako bakar batek ere ez du mantentze-planik.
- Homogeneizazio depositutik datorren biogas kanalizazioa hautsirik dago. Horrek biogas galtea eragiten du.
- Kogenerazio-lurruna sortzeko galdara matxuratua dago.

2. Udalaren bahiketaren ondoren planta zuzendu behar zuen Ingeniaritza enpresak eginiko txostena. Udalari planta ematean eginiko emate-aktari erantsi zitzaion, plantaren bahiketa hasi zelarik (2014/11/10).

Txostenaren helburua da plantaren funtzionamendu eta egoera orokorra aztertzea, haren kudeaketa eskuz aldatu zen unean, notario-aktaren kalterik gabe.

• Instalazioetan utzikeria sumatzen da, zikinak daude, era guztietako materialak daude toki guztietan, dena antolatu gabe eta korrosioa dago metalezko elementuetan. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira hondakin solidoen biltegiko teilatua, minden sarrera eta homogeneizagailuko teilatua.

• Elektrizitatea eta beroa sortzeko lau motorretatik bakar batek funtzionatzen du, eta ehuneko 60an, turboa matxuratua duelako. Plantak elektrizitatea eta beroa sortzeko duen ahalmena kon-tuan hartuz, ehuneko 15ean ari dela ondorioztatu daiteke.

• Solidoen bereizgailuak funtzionatzen ez duen *bypass* bat du. Beraz, ez da solidoen bereiz-keta egiten eta ez da horri dagokion faktura ere egiten.

• Lurruna sortzeko galdara, enpresa batean kokatua, leherturik dago. Beraz, plantak ez du lurrunaren salmentagatik diru-sarrerarik jasotzen.

• Lau homogeneizagailuetatik bakar batek funtzionatzen du.

• Plantak ez du zabaltze-baimenik. Ingurune baimen integratua lortzeko behar den dokumentazioa aurkezteko eskatu zaio.

• Ez dago babes, segurtasun eta osasun-planik. Horretaz seinale gutxi dago, eta langileenda-ko babes eta materialik ia ez dago.

• Mantentze-planik ez dago. Matxuretako batzuk sortu ahala konpontzera mugatu dira, askotan hain funtsezkoak ez ziren plantako beste tokietako materialak kenduz edo langile batzuek emaniko materialak erabiliz.

• Segurtasun neurri batzuk, hala nola plantako motor aretoko gasen isurketen neurgailua, deskonektaturik daude.

• Ez dago kudeaketa, fakturazio eta kontabilitate programarik. Kudeaketa eskuz egiten da.

• Hobi eta baltsak, plantakoa alde batera utzirik, ehuneko 20an daude beterik. Plantako hobia bera ere, gutxi gora behera, ehuneko 75ean dago beterik.

3. Plantaren bahiketaren kudeaketari buruzko hileroko txostenak.

- Konponketa eskatzen duten matxurak hileroko gertatzen dira. Motorretako matxurak etengabeak dira. Jarduera etetera heldu dira, lurrunaren produkzio eta salmenta galaraziz. Plantak iraun zuen bost urteetan ez zen digestore, homogenezagailu, hobi eta baltsen garbiketa eta mantentze lanik egin.

4. Azpiegitura eta tresneriak jasandako kalteei buruzko adituaren txostena, 2014ko abenduaren 10ekoa.

Txostenak dioenez, kaltetu edo erabiltzen ez diren tresnerien konponketarako, gutxienez, 909.210 euroko inbertsioa beharko litzateke. Plantaren betetze proiektua hartu du oinarritzat. Egin beharreko lan funtsezkoen zenbatekoa 538.999 euro da; horren xehetasunek islatzen duteenez, plantako lan tresna nagusiak ezin dira erabili edo kalteturik daude. Horrek, funtsean, notario-aktan errandakoa berresten du.

Txostenaren **konklusioak** honakoak dira:

- Planta utzia dago. Hori gainditzeko deus egiten ez bada, ez du bideragarritasun ekonomikorik. Plantaren urteko balantzeak, diru-sarrerak kontuan hartuz, ehuneko 32ko galera ekarriko luke. Horrek argi islatzen du azpiegituren egoera penagarria eta bahiketa onartu arteko kudeaketa txarra.
- Planta berriro martxan jartzeko kalkulatu den kostua 909.212 euro da, beti ere ekoizpena hasteko moduan utzita.

5. Bahiketa amaitu ondorengo plantaren egoerari buruzko txostena. Plantaren zuzendaritza hartu duen ingeniariatza enpresa aholkulariak egina, 2016ko urtarrilaren 16an.

Aurreko txostenek aipaturiko arazoak aipatzen ditu.

Bahiketak iraun duen bitartean arazo asko gertatu dira, eta horrek konponketa kopuru handia eskatu du -75.500 eurotik gora-, planta %100ean ez baino lanean mantentzeko gutxieneoak egin direla kontuan hartuz:

- Planta behi-minda besterik ez lantzeko diseinatu zen. Hori, ordea, ez zen aski plantan aurreikusitako etekina lortzeko beharrezkoa zen gasa sortzeko. Hori dela-eta, eta digestoreak elikatu ahal izateko, esne-hondakinak eta oilo-zirina sartu behar izan ziren. Oilo-zirina hartxintzar karedunen hondakin kopurua handia sortzen du, digestoreen, homogenezatzailearen, hobien eta baltsen mantentze-faltaren ondorioz.
- Bioenergia Ultzama lanean aritu zen urteetan instalazioen ordenak, garbiketak eta mantentzeak huts egin zuten.
- Alarmen aldaketa eta deskonexio asko egin dira, hasierako diseinuak sorturiko arazoak konpontzeko. Ez daude dokumentaturik.
- Sorturiko gaseko azido sulfhidrikoa gutxitzeko sistema falta da. Baliteke horrek motorren bizialdia murriztu eta plantako metalezko elementu guztiek duten herdoil-maila izugarri handia sortu izana.
- Motorrak askotan matxuratu dira, konponketa-kostu handia eraginez. Batz bestea, 40.000 orduko funtzionamendua dute eta, antza denez, bizialdiaren amaieran daude.
- Kudeaketa programak ez du aldaketarik onartzen. Txekian dago diseinaturik eta kudeaketa pantailak besterik ez ditu itzulita. Edozein arazo gertaturik, hornitzailearengana jo behar da.
- Plantako digestato-hobi guztiak estali gabe daude. Ultzaman izaten den euri kopurua dela eta, digestatoa biltzeko ahalmena ehuneko 30 gutxitzen da.
- Planta martxan jartzeko inbertsio oso handiak egin behar dira: 930.000 epe luzera. Eta horiek eginda ere, zalantzakoa litzateke funtzionamendua. Izan ere, plantaren bizialdia gutxitu egin da, mantentze-faltagatik eta eginiko konponketa kopuru handiarengatik.

- Inbertsio hauei beste batzuk gehitu behar zaizkie: minden eta digestatoaren garraioaren kudeaketa eta minda bitarteko propioak erabiliz soroetan uzteko egin beharrekoa; izan ere, horrek lanen kostuak nabarmen jaitsiko lituzke.
- Beste enpresa batekin sinaturiko beroaren salerosketa kontratua aldatu egin behar da. Kostuen deskontu handiak jasotzen ditu gasolio erabiliz gero eta horniketa nahi dutenean moztea ahalbidetzen du. Horren ondorioz, ez zaio ateratzen aurreikusitako etekin elektrikoa eta plantaren diru-sarrerak gutxitu egiten dira.
- Oraingo negozio ereduaren bideragarritasun ekonomikoa oso zalantzakoa da. Balio erantsi handiagoko hondakinen tratamenduaren aldeko apustua egin beharko litzateke, baina horrek inbertsio berriak eskatuko lituzke.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINIKO ALEGAZIOAK

Ultzamako Udalaren alegazioak

Ultzamako Biometanizazio Plantari buruzko Kontuen Ganberaren 2017ko apirileko behin-behineko txostena dela eta, honako alegazio hauek aurkezten ditut:

V. atalari buruzko alegazioak: Udal jardueraren legezkotasunari buruzko iritzia

1. ALEGAZIOA Ultzamako biometanizazio plantaren adjudikazioaren elementu osagarriak

Plantaren zerbitzu publikoa administrazio-kontzesio bidez kudeatzeko kontratuaren esleipena eta geroko ustiatzea gidatu behar duten baldintza arautzaile bereziek honako hau ezartzen zuten agiriaren 12. klausulan (Kontzesioaren formalizazioa):

“Kontzesioa dokumentu administratiboan formalizatuko da, adjudikazioari buruzko erabakia adjudikaziodunari jakinarazten zaionetik hasita hamabost eguneko epean, administrazio bidean etendura erabaki ezean.

Baldin eta sozietate kontzesio-hartzailea epe horretan eratuta ez badago, kontratua adjudikaziodunetako bakoitzarekin formalizatuko da, eta kontzesio-sozietatea eratzeko betebeharra egonen da, bai eta agiri honen 3. baldintzan ezarritako betebeharrak ere, gehienez ere hiru hilabete-ko epean. Kontzesio-hartzailearen aipatutako betebeharren ez-betetze errudunak berekin ekarriko du kontratua suntsiaraztea, fidantza konfiskatuta eta kalte eta galerak ordaintzeko betebeharrarekin.

Kontratua formalizatu baino lehen eta adjudikazioari buruzko erabakia jakinarazi eta hurrengo ZAZPI EGUN NATURALEN barruan, adjudikaziodunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Hurrengo klausulan aipatzen den behin betiko bermea aurkeztu izanari buruzko frogagiria.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza. Aseguratutako kapitala, Udalaren iritziz, esalduraren xede den arriskua bete beharko du.

Eskatzen diren dokumentuek jatorrizkoak izan behar dute edo kopiak, baina horiek benetakoak izatera eduki beharko dute, lege indardunei jarraituz”.

“Abereen mindetan oinarrituta elektrizitatea ekoizteko planta berri bat –Ultzamako Iraizozko 12. poligonoko 159. lurzatiko A azpilurzatian– eta minda digerituak biltegitratzeko bost hobi –Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Eltso-Urritzolan– egiteko obra publikoaren eta horren geroko ustiaketa egiteko kontzesioa” izeneko kontratazio espedientearen adjudikaziorako osoko bilkura 2008ko azaroaren 5ean egin zen. Osoko bilkura horretako aktan ageri den bezala, osoko bilkura 21:10ean hasi eta 22:35ean amaitu zen (ikus erantsitako 1. dokumentua).

“Abereen mindetan oinarrituta elektrizitatea ekoizteko planta berri bat –Ultzamako Iraizozko 12. poligonoko 159. lurzatiko A azpilurzatian– eta minda digerituak biltegitratzeko bost hobi –Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Eltso-Urritzolan– egiteko obra publikoaren eta horren geroko ustiaketa egiteko kontzesioa” izenekoaren kontratuari dagokionez, kontzesio horren adjudikazioa erabaki zen osoko bilkura berean sinatu zen (2008-11-05). (Ikus erantsitako 2. dokumentua).

Kontuan hartuta baldintza-agiriak ezartzen zuela kontzesioa dokumentu administratibo baten bidez formalizatuko zela adjudikazioari buruzko erabakia adjudikaziodunari jakinarazi eta hamabost eguneko epean, behin informazio hori Ultzamako Udalari eskatuta, adjudikazioaren jakinarazpena 2008ko azaroaren 13an sinatu zen, eta jakinarazpenaren hartu-agiriak 2008ko azaroaren 18ko data dauka. (Ikus erantsitako 3. dokumentua).

Halaber, baldintza-agiriak ezartzen zuen kontratua formalizatu baino lehen eta adjudikazioari buruzko erabakia jakinarazi eta hurrengo ZAZPI EGUN NATURALEN barruan, adjudikaziodunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko zuela:

- Hurrengo klausulan aipatzen den behin betiko bermea aurkeztu izanari buruzko frogagiria.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza. Aseguratutako kapitala, Udalaren iritziz, es-talduraren xede den arriskua bete beharko du.

Bada, ez dago jasota adjudikaziodunak agirietan jasotako dokumentuetatik bakarra ere aurkeztu izana kontratua formalizatu baino zazpi egun lehenagoko epean. Horrenbestez, adjudikaziodunak ez zuen aurkeztu behin betiko bermearen frogagiririk, eta, gainera, ez dago jasota, erantzukizun zibileko aseguru-poliza aurkeztu izana.

Horrenbestez, deigarri gertatzen da egun berean adjudikazioa egiteko osoko bilkura egitea – 22:35ean amaitu zen– eta adjudikazio-kontratua sinatzea, eta adjudikazioari buruzko erabakiak 2008ko azaroaren 18ko data izatea, baldintza arautzaile ekonomiko-administratiboetan ezarritakoak urratuz.

2. ALEGAZIOA Behin betiko bermeari buruzko elementu osagarriak.

Behin betiko bermeari dagokionez, Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenak dio ez dagoela jasota behin betiko bermea aurkeztu izana.

Horri buruz azpimarratu beharra dago ezen, jaunak/andreak (Ultzamako Udaleko 2011-2015 legegintzaldiko zinegotzia) Ultzamako Udalari 2014-11-20n informazioa eskatu ondoren, honako erantzun hau jaso zuela 2014-11-25ean (ikus erantsitako 4. dokumentua).

“1. eskaera, kontzesioaren behin betiko bermea itzultzeari buruzkoa:

Aditzera ematen dizugu Udalaren bulegoetan dagoen espedientean ez dagoela jasota kontratua formalizatu ondoren kontzesio-hartzaileak behin betiko bermea jarri zuenik, eta ez dagoela jasota, ezta ere, hura itzuli zenik”.

Esan beharra dago ezen, baldintza arautzaile ekonomiko-administratiboetan oinarrituta (14.1 klausula: Obretarako aurrekontua), plantaren eraikuntza-obrak kontrata bidezko egiteko aurrekontua 4.883.012,53 eurokoa dela, BEZa barne.

Behin betiko bermeari dagokionez (13. klausula: Behin betiko bermea), ezartzen zen behin betiko bermea obrak egiteko prezioaren % 4 izanzen zela. Horrenbestez, gehitu beharra dago ezen behin betiko bermearen zenbatekoak 195.320,50 eurokoa izan behar zuela (4.883.012,53 euroren % 4, BEZa barne): ez dago jasota hura aurkeztu izana.

Kontuan hartuta agiriak zehazten zuela aipatutako bermeak kontratuaren betearazpen egokia dela-eta erantzunen zuela eta ez zela ezereztuko obrak amaitzen zirenetik hiru urteko epeari dagokion legezko bermea muga-egunera iristen ez zen arte (Administrazioak egindako egiaztatze-akta) eta kontratua zuzen betetzen ez zen arte, ulertzen da Ultzamako Udalari kalte nabarmena egin zaiola, zeren eta ez baita aginduzkoa den behin betiko bermea eskatu.

3. ALEGAZIOA: Gardentasuna eta informazioa.

Ultzamako Udaleko zinegotzia zen aldetik (2011-2015 legegintzaldia), eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeko urriaren 11/2004 Foru Legean ezarritakoaren babesean, zenbait informazio- eta dokumentazio-eskari aurkeztu zituen, besteak beste kontuan hartuta Biometanizazio Planta itxi ondoren, haren kudeaketak arazoak ekarri ahal zizkiola Udalari, eta ulertuta datu horiek beharrezkoak izan zitezkeela zinegotzi gisa bete beharreko egin-kizuna betetzeko.

Bada, zenbait eskaera egin zituen arren eta haiei buruzko ezezko erantzun arrazoiturik ere ez zuenez jaso, ez zuen informazio hori eduki, eta, horrenbestez, Nafarroako Administrazio Auzitegiari babesa eskatu behar izan zion.

Hartara, bitan, Nafarroako Administrazio Auzitegiak errekurtsioak baietsi zituen (ikus erantsitako 5. dokumentua).

- 627 zenbakiko Ebazpena (2015eko martxoaren 10a)
- 653 zenbakiko Ebazpena (2015eko martxoaren 11)

V. atalari buruzko alegazioak: Prozesuaren beste alderdi batzuk

4. ALEGAZIOA: Kontzesio administratiboa Bionergía Ultzama SArI lagatzeko elementu osagarriak eta balizko bateraezintasunak.

2008ko abenduaren 12an, Bionergía Ultzama SA sozietatea sortu zen, kontzesioa egiteko.

2014ko irailaren 23an konkurtso-administratzaile jaunak egindako txostenaren arabera, 2008ko abenduaren 12an eratze-eskrituran izendatutako lehenengo administrazio kontseiluak hogeitaz batzuk Ultzamako Udaleko zinegotziak (ikus erantsitako 6. eta 7. dokumentuak):

- jauna Bionergía Ultzamako SAko idazkariorde karguan zegoen eta, aldi berean, Ultzamako Udaleko zinegotzia zen.
- Francisco jauna Bionergía Ultzama SAko kontseiluko kide karguan zegoen eta, aldi berean, Ultzamako Udaleko zinegotzia zen.
- Bestalde, jauna, “Cooperativa Aritzalde, S. Coop.” elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz, haren zuzendaritza kontseiluko lehendakaria baitzen, sozietate anonimoa (Bioenergía Ultzama SA) eratzeko eskrituran ageri da, eta, aldi berean, Ultzamako Udaleko zinegotzia zen.
- Administrazio Kontseiluko beste kideetako bat jauna zen (kontseiluko kidea). Aldi berean, proiektua idatzi zutenetako bat zen, eta Ultzamako Biometanizazio Plantako obraren zuzendaritzaren ardura izan zuen.

jaunaren txostenaren arabera, 2010eko martxoaren 23an, Administrazio Kontseiluak erabaki zuen bere kideen artean Batzorde Exekutibo bat izendatzea. Batzorde hori bost kontseilarik osatuko zuten, Iruñeko notario Rafael Unceta Moralesen aurrean 2010eko apirilaren 28an egindako eskritura publikoan jasotzen den bezala (399. protokolo zenbakia). Izendatuen artean, jauna zegoen, idazkari zereginetarako. Aipatu beharra dago jauna Ultzamako Udaleko zinegotzia zela. Batzorde Exekutibo horretako beste kide bat jauna zen (batzordekidea): proiektua idatzi zutenetako bat eta obra-zuzendaritzaren arduraduna zen.

jaunaren txostenaren arabera, hartzekodunen konkurtsoa eskatzeko idazkiarekin batera aurkeztutako oroitidazkian, bazkideak eta haien ehunekoa identifikatzen dira. Hartara, ezartzen da Bionergía Ultzama SAko bazkideetako bat SL enpresa zela; hain zuzen ere, proiektua idatzi zuena eta obra-zuzendaritzaren ardura zuena.

Txosten horretan oinarrituta, 2010eko martxoaren 31n, Administrazio Kontseiluko karguak aldatu ziren, eta jauna izendatu zen idazkari.

2009ko urtarrilaren 28an, Levenger SL eta Bioenergía Ultzama SAK Ultzamako Udalarari “Abereen mindetan oinarrituta elektrizitatea ekoizteko planta berri bat –Ultzamako Iraizozko 12. poligonoko 159. lurzatiko A azpilurzatian– eta minda digerituak biltegitratzeko bost hobi –Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Eltso-Urritzolan– egiteko obra publikoaren eta horren geroko ustiaketa egiteko kontzesioaren” lagapena egiteko baimen-eskaria aurkeztu zuten.

“Abereen mindetan oinarrituta elektrizitatea ekoizteko planta berri bat –Ultzamako Iraizozko 12. poligonoko 159. lurzatiko A azpilurzatian– eta minda digerituak biltegitratzeko bost hobi –Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Eltso-Urritzolan– egiteko obra publikoaren eta horren geroko ustiaketa egiteko kontzesioaren” lagapena baimentzeko osoko bilkura 2009ko otsailaren 4an egin zen. Osoko bilkura horretako aktan ageri den bezala, osoko bilkura 21:10ean hasi eta 22:45ean amaitu zen (ikus erantsitako 8. dokumentua).

Honako hauek egon ziren osoko bilkura horretara:

..... jauna.

..... jauna.

..... jauna.

..... jauna.

..... jauna.

..... andrea.

..... andrea.

Honako hauek ez ziren agertu:

..... jauna.

Osoko bilkura horretan aho batez onetsi zen baimena eta oniritzia ematea Levenger SL enpresak "Abereen mindetan oinarrituta elektrizitatea ekoizteko planta berri bat –Ultzamako Iraizozko 12. poligonoko 159. lurzatiko A azpilurzatian– eta minda digerituak biltegitratzeko bost hobi –Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Eltso-Urritzolan– egiteko obra publikoaren eta horren geroko ustiaketa egiteko kontzesioa" Bionergía Ultzama SA enpresari lagatzeari, eta azken horrek onartu egin zuen lagapena.

Azken batean, Ultzamako Udaleko zinegotzi jaunak, jaunak eta jaunak, Bioenergía Ultzama SAko kideak ziren bitartean, bozketan parte hartu eta lagapenaren aldeko botoa eman zuten.

Lagapena egin ondoren, jaunak, jaunak eta jaunak jarraitu zuten kontzesio-emaile zen Udaleko zinegotzi eta kontzesio-hartzailearen kide edo bazkide izaten.

Francisco Pérez Arreguiren alegazioak**ALDEZ AURREKOA**

Atal honek jasota utzi behar du Biogas Planta udal zerbitzu bihurtzarekin zerikusia duten prozedura eta adjudikazioak direla-eta hartutako erabaki eta akordio guztietan kanpoko zenbait teknikariren jarraibide eta oharrak eduki zirela, eta, batez ere, udal teknikarienenak, eta zehazki Idazkaritzarenak, erabakiak hartzeko formei, denborei eta moduei zegokienez, eta sekula ere ez zela legez kontraktotasuneko txostenik edo eragozpen-oharrik egin.

1.- Hondakinen bilketa eta kudeaketa udal zerbitzu bihurtzea.

Aurrekariak:

2006-2007 urtean, Ultzamako, Basaburuko eta Odietako udal barrutietan zeuden abeltzaintza ustiatuek ingurumen arazo handi bat zeukaten, simaurren eta minden kudeaketarekin lotua; bereziki garrantzitsua zen esnetarako behien arazoa, 33 abeltzaintza ustiatuegi eta 3.000 behi baitzeuden zentsuan; izan ere, horrek egunero 220 m³ minda eragiten ditu.

Ongarria barreia zitekeen guztizko azalera nahikoa bazen ere sortutako simaur eta minda guztiak hartzeko, ustiatuegi batzuek sortzen zituzten hondakineterako behar zena baino azalera txikiagoa kudeatzen zuten, eta alderantziz, eta horrek zailtasun handiak eragiten zituen. Gainera, simaurretik edo mindatik heldutako nitrogeno-aplikaziorako gehieneko dosia legez 250 kg/ha zen, nahiz eta laboreek behar handiagoak zeukaten.

Bestetik, simaurraren eta minden aplikazioa mugatuta zegoen, euri-hilabete ugari baitaude eta lurzoruak ase egiten direlako, eta horrek biltegitratze-arazoak eragiten zituen. Azken horri dagokionez, arazo nagusia esnetarako behien ustiatuegietan planteatzen zen, minda produkzioa zela eta; hau da, ustiatuegi gehien-gehienek arazoak zeukaten, zeren eta gutxik baitzuten legedia betez minda hori biltegitratzeko behar besteko gaitasuna.

Beren ustiatuegietako minden kudeaketaren arazoari konponbidea emateko abeltzain askok zeukaten kezka, bat zetorren beren abeltzaintza-jarduera eta ingurumen-iraunkortasuna bateragarri egin ahal izateko kezkarekin, zeren eta haien ustiatuegiak Ultzama-Basaburuko hariztiak izeneko BILean (batasunaren intereseko lekua) baitzeuden, eta BIL hori gero Kontserbazio Bereziko Eremu bilakatu baitzen, horrek bere kudeaketa-planean zekartzan bete beharreko neurriekin.

Inguruetan Belateko BILa –gaur Belateko KBEa– zegoen, eta “Orgiko Aisiarako Natura-eremua”, eta horrek berarekin zekarren lurraldea, bere osotasunean, ingurumen-garrantzi izugarri handikoa izatea eta bereziki kontserbatzekoa, horrek dakartzan betekizunekin.

Hartara, ingurumen-arazo eta araudia betetzeko arazo handien aurrean, abeltzainek beraiek eskatu zioten Udalari “behar ziren ekintza guztiak eraman zitzala aurrera minden kudeaketarako zerbitzu bateratu bat abian jartzeko”.

Eskaera horren aurrean, Udalak zenbait aukerari buruzko azterlanak egin zituen:

- minden banakako kudeaketa.
- mindak jaso eta ongarri-barreiatzeak egin baliabide komunekin.
- biltegitratzerako baltsa komunak.
- aurrekoen konbinazio bat.
- biometanizazio bidezko tratamendua.

Horietatik guztietatik jo zen aukerarik onena biometanizazio planta bat egitea zela, “hondakina” “baliabide” bikoitz bihurtuko zuena: batetik biogasa, zeina, dakizuen bezala, balio handiko lehengai bat baita, zeren eta metano-ehuneko handia baitu eta energia elektrikoa eta termikoa sortzeko erabiltzen baita; eta, bestetik, ongarria lortzea: simaurraren biometanizazioaren emaitza produktu egonkortu bat da, ez patogenorik, ez kiratsik ez duena eta landareek askoz hobeki asimilatzen dutena. Haren erabilera da landa-eremuetarako ongarria izatea edo/eta kalitatezko ongarri organikoa sortzeko oinarria izatea.

Biltegiratzerako edukiera handitzeko banaka egin beharreko inbertsioa (minda-putzuak), nahitaezkoa baterako konponbide bat aurkitu ezean, banakako ahalegin handia eskatzen zien abere-ustiatzei, eta hori galga handia izan zitekeen horietako batzuen iraupenerako.

Bestetik, aukeratutako konponbidearekin, abeltzainek ez zituzten banakako inbertsioak egin behar beren biltegiratze-ahalmena handitzeko, eta mindak hobeki kudeatu ahal zituzten kostu errealak handitu gabe. Bestetik, proiektua interesgarria zen ikuspuntu teknologikotik, Europan frogatuta zegoen teknologia erabiltzen baitzuen eta Nafarroan eta Espainian aitzindaria baitzen.

Proiektuaren jasagarritasun ekonomikoari dagokionez, ustiatzearen banakako inbertsioa saihestiaz gainera, aipatu den bezala, sortutako elektrizitatearen produkzioak eta salmentak aukera emanen zuen diru-sarrera batzuk eskuratzeko, zeinak balia baitzitezkeen inbertsioen amortizazio-gastuei, plantako funtzionamendu- eta mantentze-gastuei eta garraio-gastuei aurre egiteko.

Bestetik, beroa eta soberako ur-lurruna halako elementuak kontsumitzen zituzten eta Ultzamako industrialdean kokatuta zeuden enpresei saldu ahal izateko aukerak erraztasunak emanen zituen, halaber, planta errentagarria izateko. Era berean, digestio-prozesutik ateratzen zen produktuak, zeinak ongarri-ezaugarri onak izanen baitzituen, aukera emanen zuen ongarri moduan merkaturatzeko, simaurra edo minda normala baino prezio hobean.

Garrantzitsua da, gertatutakoa ulertzeko gakoa baita, data haietan, 2007ko ekitaldian, berriki onetsita zegoela 661/2007 Errege Dekretua, Sektore Elektrikoari buruzko 54/1997 Legea garatzen zuena. Bada dekretuak banaketaren araubide berezia arautu eta zenbait prima ezartzen zituen energia berriztagarrietarako eta kogeneraziorako.

Horrekin guztiarekin, 2008ko urriaren 8an, Ultzamako Udalak AHO BATEZ erabaki zuen kontratazio espedientea hastea "Abereen mindetan oinarrituta elektrizitatea ekoizteko planta berri bat –Ultzamako Iraizozko 12. poligonoko 159. lurzatiko A azpilurzatian– eta minda digerituak biltegiratzeko bost hobi –Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Eltso-Urritzolan– egiteko obra publikoaren eta horren geroko ustiatzearen kontzesiorako."

Plantak, bere aldetik, bere amaierako prozesuan gai solido eta likidoetarako bereizgailu bat jarri zuen, haien gero bereiz biltegiratu ahal izateko, eta atal likidoa aurrez aipatutako lurzatiaren barreiatu ahal izateko. Solidoak % 35eko hasierako nitrogenoa izanen zuen, eta gero digestio-plantan bertan kokatutako bi simaurtegitan biltegiratuko zen, eta ongarri gisa salduko zen.

Hau da, babes maila handia zuen eremu batean hondakinekin arazo larri bat edukizetik, ingurumenerako onura eta onura ekonomikoa lortzera iragan zen.

UDAL ZERBITZU BIHURTZEARI BURUZKO ERABAKIA

Aldez aurretiko txostenak 5. orrialdeko laugarren paragrafoan dio udal zerbitzu bihurtzeko erabakia 2008ko urriko osoko bilkuran hartu zela.

Gero, 11. orrialdeko hirugarren paragrafoan dio espedienteak ez duela frogatzen udal zerbitzu bilakatzearen egokitasuna.

2008ko urriko bilkuraren aktan, honako hau esaten da:

Lehenbizi, alkateorde jaunak, alkatea ordezkatzuz eta osoko bilkuraren buru gisa, bertaratutako koei gaia aditzera eman eta azaldu zien, eta espedientean jasota dauden dokumentuen edukia laburbildu zuen.

Gaiari buruzko eztabaidarik izan ez zenez, aho batez hartu zen ondoren hitzez hitz jaso dugun erabakia.

Udal espedienteak jaso egin zituen planta udal zerbitzu bihurtzearen arrazoiak, eta gaia aztertu egin zen erabakia hartu aurretik. Izan ere, erabaki hartan honako hau jaso zen:

.- Ikusita eskualde honetan dagoen arazoa, abere-ustiatzeetatik heldu diren mindei konponbide egokia emateko beharretik heldutakoa, betiere dauden ingurumen-balio berezien arabera (Ultzamako eta Basaburuko hariztien BILa).

.- Ikusita Ultzamako Udalaren erabakiaren edukia, “eskualde honetako abeltzaintzako mindaren kudeaketa mankomunatu egiteko” proiektu bat garatzeari dagokionez, eta Basaburuko eta Odietako Udalak erabaki hari atxiki zaizkiola.

.- Ikusita udal honetan dagoen proiektuaren edukia –proiektua “Ultzaman gasa eta elektrizitatea sortzeko minden digestioko planta mankomunatu” bat eraiki eta funtzionamenduan jartzeari buruzkoa da eta Aierdi Ingenieros SL Ingeniaritza Estudioak egin du–.

.- Ikusita Simaurren Kudeaketarako 2360120159/1/1 Planaren edukia –Ultzamako, Basaburuko eta Odietako udalek sinatu dute, eta Minden Digestioko Plantaren proiektuari buruzkoa da–.

.- Ikusita Espedientean proiektuaren bideragarritasunari buruz ageri diren datu ekonomikoak.

.- Ikusita, horrenbestez, jarduera edo zerbitzu hori betetzea Ultzamako Udalarentzat egokia izateari buruzko gogoeta –honako honetan datza, hain zuzen ere: “elektrizitatea eta gasa sortzea eskualdeko abere-ustiategietatik abeltzaintzaren hondakinak (mindak) jaso eta tratatzea abiapuntu hartuta”–; izan ere, onura publikoko eta interes sozialeko jarduera bat da udal honentzat.

.- Ikusita aplikatzekoa den araudiaren edukia:

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 209. artikulua eta horrekin lotutakoak.

Toki Araubidearen Oinarriari buruzko 7/85 Foru Legearen 86. artikulua eta horrekin lotutakoak.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA. Honako jarduera hau egitea: “Elektrizitatea eta gasa sortzea eskualdeko abere-ustiategietatik abeltzaintzaren hondakinak (mindak) jaso eta tratatzea abiapuntu hartuta”; izan ere, onura publikoko eta interes sozialeko jarduera bat da udal honentzat.

Agerikoa dirudi justifikazioa in aliunde eman zela, eta gaia ontzeko prozedura bat egon zela, eta erabakia hartzeari buruzko espediente bat bazegoela.

Lehendik zegoen arazoa jada bilduta zegoen 2007ko apirilko aurreproiektuan, eta 2007ko proiektuan errepikatu egiten da; izan ere, azken horretan arazoak eta balizko konponbideak definitzen dira, zehazki 4. orrialdetik 14.era, eta hori udalaren erabakian aipatzen da. **HORI GUZTIA AURREKARIETAN ZEHAZTU DUGUN PROBLEMATIKAN BETE-BETEAN GEUNDELA.**

PROIEKTUEN ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN AUKERAKETA.

Egia da proiektuak kontratatzeke erabili zen prozedura negoziatua izan zela, horixe izan zela-ko Udaleko idazkaritzak kasu honetan zuzentzat eta legezkotzat jo zuena.

Egia da adjudikaziorako irizpidea prezioa izan zela, eta, horrenbestez, ezin zela inongo subjektibotasunik egon kontratazioan.

Gehitu beharra dago gainerako lizitatzailleek lizitazio prezioaz goitiko eskaintzak egin zituztela, eta lehiaketatik baztertu behar izan zirela.

Berriz diogu, 11. orrialdeko azken paragrafoari dagokionez, ez zela zuzeneko adjudikazio bat izan, baizik eta prozedura negoziatuaren bidezko adjudikazioa, horixe izan baitzen idazkaritza-zerbitzuek lizitaziorako egokitzat jo zutena.

OBRAK ETA KUDEAKETA ADJUDIKATZEKO PROZEDURAREN AUKERAKETA.

Gehitu beharra daukagu kontratazioa kudeatzearen ardura udal idazkaritzarena dela, eta horrek Kontratazio Atarian erantsi behar zituela lizitaziorako bidezko ziren dokumentuak. Dokumentu horiek zein diren alde honek ez daki, zeren eta gai honetan ezjakina baita. Proiektua jendaurrean jarri zen Kontratazio Atarian; hori dela eta, interesa zuen edozein lizitatzaillek lizitazioaren aurkako errekurtsioa aurkez zezakeen –informazioa argitaratu ez izateagatik– ala argitalpenean zehazten ziren posta-helbide, helbide elektroniko edo helbide fisikoetan eska zezakeen, eta azken horixe egin zuten. Inork ez zuen iragarkiaren aurkako errekurtsorik aurkeztu.

18 eguneko epea lizitazioaren unean indarrean zegoen Kontratuei buruzko Foru Legearen arabera da, eta haren arrazoiak bi ziren: minden hondakinen arazoei konponbidea eman behar izatea eta diru-laguntzetarako deialdian aurkezteko asmoa.

4., 5., 6. eta 7. paragrafoetan ageri diren adierazpenei dagokienez, inongo ohartarazpenik ez genuen jaso lehia askerako mugarik egotearen legezkotasunari buruz; aitzitik, alde honek ez zuen jakin inongo urratzerik zegoenik, eta agiriaren betekizunen inongo ez-betetzetik ez zen aurkitu, enpresa adjudikaziodunaren baliabide berekiei zegokienez, eta inongo kidek ez zuen adierazi abstentziorako betebeharra zuenik, mahaian parte hartzeari begira. Nabarmendu beharra dago mahai hori sei kidek eta idazkariak osatuta zegoela, erabakia aho batez hartu zela eta inork ez zuela ezer ere alegatu kontzesioaren prozesu osoan zehar.

Alde honek ezin du egiaztatu behin betiko bermea eman zen ala ez, baina bai egiazta dezake ezen, onetsitako baldintzen arabera, berme horren helburua zela plantaren eraikuntzarako eta mantentzerako epe bat bermatzea, eraikuntza egiten zenetik hiru urtekoa, gogoan duenez. Hau da, nolana ere behin betiko bermea 2013an amaituko zen. Logikoa denez, obra-kontzesioaz oso bestelakoa den kontzesio baten aurrean gaude; izan ere, obra-kontzesio batean, berme bat jarri beharra dago, Administrazioak hartu eta ordaindu beharreko obraren balizko akatsak esaltzeko. Kasu honetan, Administrazioak ez zuen inolako obrarik jaso; izan ere, kontzesioa jardura bat exekutatu eta ustiatzeko da, eta horretan lehenengo onuradun edo kaltetuna kontzesio-hartzailea bera da, zeren eta bera baita obra egin, ordaindu eta ustiatzen duena.

Bai esan beharra daukat alde honek gogoan duela obra amaierako ziurtagiri bat egon zela; horrenbestez, ez gaude ados Ganberak bere txostenean dioenarekin, alegia irekitzeko aginduzkoak lizentziak hura gabe eman zirela. Jakina da irekitzeko lizentziarik gabe ezin dela elektrizitatek ez ekoitzi ez sare orokorrera eman ere.

Ondorio gisa, alde honek berriz ere jasota utzi nahi du ezen kontratazioaren tramitazioan zehar, Udaleko idazkariak ez zuela inongo ohartarazpenik egin inongo legezkotasunari buruz, ez zela inongo eragozpen-ohar ekonomikorik jarri, eta inoiz ere ez zela ez errekurtsorik ez kexarik aurkeztu prozedura zela eta. Inguruabar hori behin betiko txostenean jaso dadila eskatzen dugu, bai eta Nafarroako Kontseiluak aurrera eramandako prozedurari buruz egiten duen balorazioa ere; izan ere, 2016ko apirilaren 28an egindako txostenaren arabera, honako hau dio hitzez hitz:

Kontratua arautzen duen baldintza ekonomiko-administratiboen agiriak, behar besteko argitasun eta zehaztasunez, 1. klausulan (Izaera eta helburua) dio kontzesio honen helburua dela kontzesioaren xede diren obra publikoak kontzesio-hartzailearen arrisku eta menturara egin eta ustiatzea. Berak hartuko ditu bere gain eraikuntzaren eta ustiapenaren arrisku ekonomikoak, agiri honetan eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Legean ezarritako moduan eta norainokoarekin; eta hori guztia bateragarria da obrak finantzatzeko sistemarekin eta Administrazio kontzesio-emaeleak egin beharreko ekarpenekin”.

AZPIEGITURAREN EGOERA ETA ULTZAMAKO UDALARENTZAT ERAGIN DEZAKEEN GORABEHERA

Plantaren itxiera ekarri zuten arazo ekonomikoei dagokienez, gure ustez funtsezkoa da 2014an primak ezabatzeak kontuetan izan zuen eragina; izan ere, 400.000 euroko diru-sarrerak ziren enpresarentzat. Uste dugu hori txostenean jaso beharra dagoela, zeren eta ordura arte ku-deaketa errentagarria izan baitzen.

2014ko ekainaren 20ko EAOk ekainaren 16ko IET/1045/2014 Agindua argitaratu zuen; haren bidez, instalazio tipoetarako ordainketetarako parametroak onetsi ziren, energia berriztagarriko iturrien bidez, kogenerazio bidez eta hondakinen bidez energia ekoizten zuten instalazio jakin batzuei aplikatzekoak. Agindu horrek ekainaren 6ko 413/2014 Errege Dekretua garatu eta osatu du; izan ere, horren bidez arautzen da energia elektrikoa iturri berriztagarrien, kogenerazioaren eta hondakinen bidez ekoizteko jardura. Errege dekretu horrek, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Lege Dekretuarekin eta Sektore Elektriakoari buruzko 24/2013 Legearekin batera, ordainketa-sistema berri bat ezarri zuen Ultzamakoa bezalako plantentzat, besteak beste. Horri guztiari energia elektrikorako “prima” pizgarrien sistemaren desagertzea deitu izan zaio.

Legedi horrekin, aldatu egiten da Sektore Elektrizitateko 54/1997 Legeko ordainketarako araubide berezia, 661/2007 Errege Dekretuak garatu zuena; izan ere, horrexen menpe proiektatu zen Ultzamako biogas planta. Horrek guztiak eragin negatiboa izan du Araubide Bereziari lotutako instalazioek (energia berriztagarriak eta kogeneraziokoak) aipaturako araudi horiek indarra hartu arte jasotzen zuten ordainketan.

Eta horri gehitu behar zaio 2012an zerga-tasa batzuk ezarri zirela; esate baterako, energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga (dakizuenek, ekoiztako balioaren % 7) edo hidrokarburoen gaineko zerga, zeinek, halaber, lagungarri gertatu baitira Bioenergia Ultzamaren plantaren errentagarritasuna okerragotzeko. Gure ustez, egokia da txosten honetan hori guztia aipatzea, are gehiago kontuan hartuta aurretik guztiz sumatu ezina zen lege-aldaketa baten aurrean gaudela, eta horrek oraindik ere konponbidea eman ez zaion segurtasun juridikorik eza eragin zuela.

Egitate hori datu bakar batek argituko du, nire ustez. Kontuen Ganberak dioen bezala, plantak bahiketa bitartean, urtebete eta zerbait gehiago, sortu zuen defizita 78.000 eurokoa izan zen, eta primak kentzearen ondorioz jaso ez zuen kopurua, berriz, 400.000 eurokoa. Azken horrek galera horiek berdinu eta 322.000 euroko etekin teorikoa sortzeko aukera emanen zuen.

Halaber, funtsezkoa da nabarmentzea aztertutakoaren antzekoak diren beste instalazio batzuek herrialdeko beste toki batzuetan daukaten egoera; izan ere, primak kendu ondoren, egokitu egin dira eta orain, funtsean, jardunean jarraitzen dute, beste hondakin batzuei balioa emateko lanetan. Plantaren eta haren arazo ekonomikoaren egoera ezagunak sektorez kanpoko enpresa batzuk eraman zituen 2015etik hartaz interesatzeko eta are eskaintzak egiteko ere, haren bideragarritasunez seguru baitzeuden.

Amaierako ondorio gisa gustatuko litzaidake nabarmentzea Ultzamako Udalak edo, hobeki esan, Ultzamako abeltzaintzaren sektoreak, Nafarroako Foru Komunitate osoko behi-esnearen produkzioaren % 25 bertan baitago eta ingurumenaren aldetik babestutako lurraldea baita, egoera oso kezagarria zuela, eta konponbideak oso traumatikoak izan zitezkeela. Planta izan zen abeltzainek, nekazaritza-sindikatuak, Nafarroako Gobernuako departamentuek eta ibarreko biztanleria osoak aukeratu zuten konponbidea, eta haren izapidetzean ez zen alegazio bakarra ere aurkeztu. Plantak abeltzainen arazoak konpontzen zituen, mindaren usain desatseginak neurri handi batean kentzen zituen, ongari hobea sortzen zuen, patogenorik gabea, enplegua eta Udalarentzako diru-sarrera bat sortzen zituen, kanon bidez –batere gutxiestekoa ez den zerbait–, eta hori guztia Udalak dirurik jarri gabe, Ganberak ongi dioen bezala.

Gaur egun, planta itxita dagoela, abeltzainek lehengo arazoak izaten jarraitzen dute, turismoaren sektorea kexu da kiratsarengatik, eta ingurumen arloak bi mehatxu dauzka: abeltzaintzak orain arte bezala jarraitzen badu, nitratoen bidezko balizko kutsadura mehatxu bizi eta oso garrantzitsua da; abeltzainak desagertzen badira, berriz, ingurune naturala oso kaltetuta aterako da, haren bermatzaila nagusiak desagertuko direlako. Hori guztia dela eta, guztiz ados egon beharra daukat Kontuen Ganberarekin, ondorioztatu baitu administrazioak premiatu behar direla akordio batera iritsi eta planta irekitzeko.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot Kontuen Ganberari egin duen lanarengatik.

Larraitzarren, 2017ko apirilaren 18an.

Sin.: Francisco Pérez Arregui

Francisco Javier Tornaría Iguelzen alegazioak

Francisco Javier Tornaría Iguelzek, Ultzamako Udaleko alkate ohi gisa, eta profesionalki ingeniari tekniko industrial gisa eta ingeniari industrialetako, adar mekanikoko, graduatu gisa,

honako hau adierazten du: Kontuen Ganberak Ultzamako Biometanizazio Plantari buruz egin duen behin-behineko txostenari alegazioak aurkezteko aukera dudala, eta honen bitartez, behar den denboran eta moduan, honako alegazio hauek aurkezten ditudala:

Txostenaren IV. kapituluak aipatzen du ez dagoela obraren amaierako ziurtagiririk, eta Proiektuaren bestelako kontuak atalean, ordea, hirugarren paragrafoan, honako hau aipatzen da: "Udal zabaltze lizentzia. 2010eko ekainean eskatu zen, obraren amaierako ziurtagiria aurkeztuta...". Hau da, txostenak berak dio obra amaierako ziurtagiri bat badagoela. Haren kopia aurkez dezaket, Ganberak hala nahi badu.

Kapitulu berean, aipatzen dira, edo antzeman daiteke, fakturen emisio eta ordainketa bikoitza egon dela, eta hori erabil zitekeela diru-laguntza batzuk oinarritzeko; hau da, inbertsio bakarrak balio izan zuela bi departamenturen diru-laguntzak kobartzeko. Horren aurrean, lehenbizi gustatuko litzaidake aipatzea ez Udaleko kontu-hartzaileak, ez Departamentuak ez dutela inoiz ere inongo eragozpen-oharrik aurkeztu laguntzak izapidetzeari buruz edo Udalak haiek direla-eta bete beharrekoei buruz, haren erantzukizunaren mugaraino. Besterik da kontzesio-hartzaileak txostenean azaltzen den jardunbidea egin zuen ala ez. Hala eta guztiz ere, eta errespetu eta zuhurtasun guztiarekin, zeren eta ez baititut ezagutzen departamentuei aurkeztutako fakturak, uste dut uste horrek huts handiak dituela. Eta hori azalduko dut: diru-laguntzak ordaintzeko eta haiek egiaztatzeko ezarrita dagoen prozeduraren arabera, baldintza saihetsezina da inbertsioak hala-kotzat kontabilizatzea enpresaren ibilgetuaren partida desberdinetan. Txostenak VI. puntuan ongi jasutzen duen bezala, kontabilitate horren ondorioz, enpresaren kontabilitatearen egoera-orriek haren ibilgetuan eman beharko ligukete txostenean aipatzen den zenbateko bera, 5.729.509 euro; merkataritza enpresak Nafarroako Merkataritza-erregistroan aurkeztutako kontuek, ordea, erakusten dute guztizko ibilgetua 2008an 20.000 eurokoa izan zela, 2009an 1.582.889,63 eurokoa eta 2010ean 4.737.553,72 eurokoa, behin amortizazioari dagokion 18.300,63 euroko kopurua kenduta. 2010ean hasi zen lanean planta, eta inbertsio ia osoa eginda zeukan. Informazio gehiago nahi bada, aipa daiteke ibilgetu handiena izan zen ekitaldia 2012koa izan zela, 4.820.329,21 eurokoa izan baitzen, 149.164,3 euroko urteko amortizazio baten ondoren; hau da, enpresak kontabilizatutako inbertsioak oso urrun geratzen dira txostenean adierazitakoetatik. Adjudikaziodunaren pasiboari buruzko azterketak, berriz, adierazten digu haren finantzaketak honako kopuruak izan zituela 2010ean:

Ordaindutako kapital soziala: 1.000.000 euro; diru-laguntzak: 900.000 euro; epe luzeko maileguak: 2.700.000 euro; merkataritza-hartzekodunak: 559.000 euro. Horixe da pasiboa edo enpresak bere aktiboa dela-eta aitortutako "finantzaketa osoa". Bistan denez, aktiboak enpresaren ondasunak eta eskubideak hartzen dituzenez, bat dator ibilgetuaren eta gainerako eskubideen 4.820.000 euroko kopuruarekin. Ibilgetua dela-eta aitortutako zenbatekoari ekitaldiko galerak gehituz gero, gutxi gorabehera 900.000 euroko aldea ateratzen zaigu Ganberaren txostenean ageri denarekin alderatuta. Agerikoa da kontzesio-hartzaileak jasotako eta egindako fakturen erregistroaren azterketa egitea ez dagoela nire esku, baina horrek zalantza hauek argitzeko balio lezake; nolana ere, Udalak, zalantzarik gabe, aurkeztu eta egiaztatu ziren fakturak ordaindu ditu soilik, eta horiek bat datoz Landa Garapeneko Departamentuak emandako laguntzekin, onetsitako baldintzen agiriari jarraituz.

Udalak planta bahitzeak ekarri dituen gastuei dagokienez, txostenean aipatzen den bezala hasieran 78.492 eurokoak izan baziren ere, jakin dudanez gero haiek gutxitu egin ziren, prima elektrikoaren erregularizazioen ondorioz. Halaber, azpimarratu nahiko nuke saldo horren zatirik handienak honako osagai hauek dituela: inbertsioak, euste-horma, motorraren Owerool delakoa, itxieraren ondorengo garbiketa eta abar... eta ez plantak berak funtzionamenduan izan dituen ustiategi-gastuak. Horietatik asko planta itxi ondoren izan ziren. Hala eta guztiz ere, Nafarroako Kontseiluak bere azken irizpenean erabilitako irizpidearekin bat, gastu horiek kontzesio-hartzaileari dagozkio, eta haren aktiboetatik ken daitezke.

Ez nago ados, ezta ere, plantaren finantzaketa dela-eta aurkezten den taularekin, baina ados nago azaldutako zenbatekoekin; izan ere, zenbatekoak ez daude garaien arabera ongi sailkatu-rik, eta denboraren errealitatea nahasten dute. Egia da kontzesio-hartzaileak finantzaketa hori

izan zuela, baina 2009tik 2012ra; izan ere, urte horretan kobratu zituen azken diru-laguntzak eta Ministerioaren mailegua. 2012ra arte, urte horretan 55.221,82 euroko etekina izan baitzuen, enpresak 477.128,48 euroko galera metatuak izan zituen, eta 2012an zordunen 200.000 euro eta eskudirutan 121.000 euro zeuzkan. 2012ra arte, enpresak, diru-laguntzen urtez urteko banaketa dela eta, 650.000 euro aplikatu zituen emaitzan, ibilgetuaren amortizazio metatu gisa 300.000 euro kenduz. Esan nahi dudana da enpresaren irudi erreala izateko garai berak hartu behar ditugula kontuan, eta funtsen jatorria eta aplikazioa azaldu behar ditugula, eta orduan lortuko dugula errealitatea. Laburbilduz, enpresak ekitaldi guztietan 5.000.000 euro inguruko aktiboa aitortu du, pasiboaren berdina; horrenbestez, ezin uler daiteke txostenak agertzen duen 5.729.209 € euroko inbertsioa.

Ondorioa da, nire ustez, plantak 5.150.000 euro inguruko inbertsioak egin zituela, eta planta egiteko diru-laguntzak 2.462.000 euro ingurukoak izan zirela, ia % 50; eta berme edo abala – zeina betearazi den ala ez, agerikoa denez, ez baitakit– diru publikoa bada ere, kapitulu honetatik kanpo geratu beharko litzateke, nire ustez, edo proiekturako jasotako diru-laguntzen ehunetik kanpo, ministerioak emandako mailegua bezalaxe. Abala finantza-entitateen eta SODENAREN arteko akordio bat izanen litzateke, zeinean Udalak ezertarako ere ez baitu parte hartu; eta ministerioaren mailegua, berriz, I+G+B proiektu baterako mailegu bat da, zeina ez baitakit betearazi den ala ez.

Azkenik, kapitulu honetan, gustatuko litzaidake argitzea Udalak eskatutako diru-laguntzek ingurumen-helburu argi bat zeukatela, eta ez inolaz ere helburu tekniko edo enpresakoa. Bestalde, nire intuizioa da kontzesio-hartzaileak, bere aldetik, laguntzak eskatu zituela industria-jarduera bat garatzeko deialdien babesean.

V. kapitulua dela eta, esan beharra daukat, funtsean, Ultzamako Udalak aurrera eramandako prozedura administratiboak, bai proiektuaren erredaktoreak kontratatzerakoan, bai obra adjudikatzerakoan, udal idazkariaren jarraibideen eta zuzendaritzaren arabera egin zirela, eta inoiz ere ez zela legezketasunari buruzko inongo oharrik egin, ez eta eragozpen-oharrik ere.

Nahi nuke ohar hori behin betiko txostenean jaso dadila.

Txostenak aipatzen du lizitazioa kontratazio-atarian eman zela argitara, eta, harekin batera, administrazio baldintza berezien agiria erantsi zela, baina ez preskripzio tekniko berezien agiria, ez eta proiektua edo gainerako dokumentazioa ere. Bada, argitaratu zen egunera jo beharko genuke atariaren beraren funtzionamendua ezagutzeko (garai haietan aktibatutako tresna informatiko bat da), bere bertute eta akatsekin. Eta esan beharra dago AKATS GARRANTZITSU bat izan zela dokumentazioa eransteko muga bat bazegoela, pisu handiko artxiboak erantsi behar baitziren. Hori ez zuen soilik Ultzamako Udalak pairatu; izan ere, gaitz orokor bat izan zen, udal guztientzako, eta guztiek gauza bera egiten zuten: atarian bertan adierazi non jaso zitekeen dokumentazio osoa. Ultzamako kasuan, atarian bertan esaten zer egin behar zen: harremanetarako pertsona, telefonoa, faxa, posta elektronikoa, posta-helbidea eta informazioa eta kopiak lortzeko web-orria. Halaxe egin zen. Aipatu bezala, egoera hori ez zen Ultzamako kasuan bakarrik gertatu; izan ere, ohikoa izaten zen.

Egia da, bestalde, bi eskaintza jaso zirela, eta egia da, era berean, biak oso desberdinak zirela. Proposamenetako batean lizitaziorako ezarritako egiteko bat jaso zen: funtsean, ukitutako eremu guztian sortutako minda jasotzeko eta hura kudeatzeagatik diru-kopuru jakin bat kobratzeko betebeharra, horixe baitzen agiriak ezartzen zuena. Beste eskaintza nabarmen desberdina zen, zeren eta ez baitzuen bermatzen eragin-esparruko ustiategietako MINDA GUZTIA jasotzea, fabrikazio-prozesua bera zela eta; izan ere, ko-digestioa beste produktu batzuekin egin beharra zeukan eta, noski, orduko 500kW-eko produkzio-muga zegoenez, minda sobran zegoen. Ados nago txostenean bi lizitzaileak direla-eta adierazitako asimetriarekin, baina horren arrazoia fabrikazio-prozesuak dira, aurrez esan dudana bezala, eta ez inolaz ere aurkeztutako dokumentazio eskasa. Lizitazioa zela-eta interesa erakutsi zuten enpresa guztiek informazio bera jaso zuten.

Lizitzaile bakoitzaren kaudimena egiaztatzeari dagokionez, kontuan hartu behar dugu minden tratamendurako sistema bati buruz ari garela, eta sistema horrek Europan urtetan funtzionatu badu ere, Nafarroan eta Espainian guztiz berritzailea zela. Ultzamako proiektua Espainian garatutako lehenengoa edo bigarrena izan zen. Enpresek atzerriko plantetan zeukaten esperientzia aurkezten zuten, baina nazio mailako planta BAKARRA ERE ez zegoen ikusteko. Une haietako

proiektu aurreratuena KARRANTZAKO plantarena omen zen. Kasualitatez, adjudikaziodunak bazuen Lizarran egindako proiektu bat, biogasaren bidezko kogeneraziokoa. Txostenak, halaber, adierazten du lizitatzailleen kaudimen ekonomikoan alde nabarmena zegoela: adjudikaziodun suertatu ez zen enpresak 1,8 milioi ingurukoa aurkeztu zuen, eta adjudikaziodun gertatu zenak, berriz, 123.171 eurokoa; eta egia bada ere, adjudikaziodunaren kapitala inbertsioaren -4.209.494 euro- % 20 baino txikiagoa zela, egia da, halaber, haren eskaintzak berekin zekarrela sozietate bat eratzea, eta sozietate hori 1.000.000 euroko kapitala jarriz eratu zela. Funts horiek, bistan denez, inbertsioaren % 20 baino gehiago estaltzen dute. Informazio hutserako besterik ez bada ere, adierazi beharra dago adjudikaziodun gertatu ez zen enpresa gaur egun edo hartzekodunen konkurtsoan dagoela edo jada likidatuta dagoela, nahiz eta kapital sozial handia zuen; adjudikaziodunak, berriz, merkatuan jarraitzen du.

Beste behin nabarmendu nahi dut ezen izapidetze horretan akats administratiboren bat izan bada, Udaleko zuzendaritza juridikoak inoiz ere ez digu halakoren berri eman, eta ez garela halakoez kontziente izan. Horretaz inongo ohartarazpenik ez ziguten egin, ezta ere, kontratazio mahaiari aurreproiektuko eta proiektuko erredaktoreen parte hartzeko ezintasunari buruz ere. Iruzkun batean ageri da proiektuko erredaktoreek sartutako plantako eskema batzuk adjudikaziodunek prestatutakoak zirela. Horri buruz esan beharra daukagu biogas planta baten funtzionamenduari buruzko eskema orokor bat sartu zutela, eta eskema hori adjudikaziodunaren web-orrian ageri zela, eta azkenean EZ DATORRELA BAT Ultzaman diseinatutako plantarekin; hori bezala, burdingaien edo hormigoien arloko profesional batzuen lamina batzuk jarri ziren, edo Segurtasunaren eta Osasunaren arloko beste batzuen laminak... Ohikoa da hori edozein proiektu egiteko garaian. Nabarmendu beharra dago 2008an arlo horretako ez teknikaririk, ez profesionalik ez zegoela -gaur egun, ordea, badaude-, eta logikoa denez teknikariek sarean bilatu behar izan zutela informazioa. Horren adierazgarria da plantak bere hasieran izan zuen bisitari pila; izan ere, bai teknikariak, bai profesionalak bisitatu zuten minden inguruko arazoei konponbideak emateko. Halaber, plantak sari batzuk jaso zituen. Ohikoa da proiektuko erredaktoreek kontratazio mahaietan parte hartzea. Kasua bada, adjudikaziodunarekin lehendik izandako harremanengatik abstenitzeko betebeharra, berriz, norberarena da, eta ez beste inorena: ukituei baino ez dagokie eta beste inork ezin ezagut dezake. Kasu honetan, mahaia guztira sei kidek eta idazkari batek, eta proiektuko erredaktoreak bi baizik ez ziren. Adjudikazioa aho batez onetsi zen; erredaktore izandakoen botoa, nolahi ere, ez zen determinantea izan.

Ez dakigu behin betiko bermea aurkeztu zen ala ez, eta balizko erantzukizunei dagokienez, ulertzen dut txostenean berme horren norainokoa eta iraupena jaso behar dela, eta horixe eskatzen dut, zeren eta nire ustez hura eman zen, edo eman behar zen, planta eraikitze berme gisa; eta iraupena haren bermearen berdina zen -hau da, hiru urtekoa-, eta nolahi ere 2013rako bukatu behar zuen. Normala denez, bermeak obraren akatsak estali behar ditu, obra hori lizitatzaileri eskuratzen zaionean; eta agerikoa den bezala, emaitza ona izatea bermatu behar du. Hala eta guztiz ere, kasu honetan (planta eraiki eta ustiatzea), eraikuntza, haren erabileraren eta haren gozamenaren adjudikaziodunarenak ziren, eta adjudikazioduna bera zen haren funtzionamenduan, errentagarritasunean eta produkzioan interes handiena zuena.

Halaber, ulertzen dut ezen Udalak entitate kontzesio-hartzailean partaidetzarik ez bazuen ere, nahiz eta adjudikaziodunaren eskaintza aurreikusi -ez zen inolaz ere betebeharrat-, Udalak sozietatea eratu zenetik kide bat izan zuela haren Administrazio Kontseiluan, ahots eta botoa zuena; eta uste dut horixe dela inporta duena, eta txostenean horrelaxe jasotzea nahi nuke.

Bahiketari eta kontzesiorako kontratua suntsiarazteari dagokionez, ez nago ados Ganberarekin kontzesioa suntsiarazteari buruzko erabakia hartzeko uneari dagokionez. 2014an, bahiketa egin zenean, negoziazio arin eta positiboak izan genituen Iruñerriko Mankomunitatearekin eta plantan interesa zuen besteren batekin.

Mankomunitateak bere hondakin organikoak konponbide bat emateko beharra zuen. Gaur egun, antzeko ezaugarriak dituen Caparrosoko planta batera -2,5 aldiz urrunago dago- eramaten ditu. Arazoak konpondu gabe jarraitzen du. Mankomunitateko buruak halaxe adierazi zuen publikoki hedabideetan; hortik heldu da guk bahiketari buruz -ez kontzesioa suntsiarazteari buruz- geneukan interesa.

Plantako txosten teknikoek jasotzen duten abandonu-egoerari dagokionez -eragina izan dezake Ganberako teknikarien iritzian, kontzesioa suntsiarazteari begira-, nabarmendu behar dugu

plantaren abandonua ez ezik, haren bideragarritasuna ere jasotzen dela, kudeaketan aldaketa txiki batzuk eginda; eta hori garrantzitsua da.

Azpiegituren egoera izeneko VII. puntuari dagokionez, puntu osoarekin ia ados egon arren, gogoeta batzuk zehaztu nahi nituzke. Plantako produkzioa dela eta, funtzionamenduan eman duen denborari erreparatuta, ezin da ondorioztatu energia elektriko eta termikoaren produkzioa, bai lurrunarena, bai ur beroarena, aurreikusitakoa baino txikiagoa izan dela. Teknikari gaituek 2014an egindako txostenak horren testigantza eman eta gai hori berresten du. Halaber, produkzioei buruzko zerrenda bat erantsi dut, hori berresten baitu. Jaitsi dena, eta MODU OSO NABARMENEAN, elektrizitate-produkzioarengatik fakturazioa izan da.

2014ko ekainaren 20ko EAOk ekainaren 16ko IET/1045/2014 Agindua argitaratu zuen; haren bidez, instalazio tipoetarako ordainketetarako parametroak onetsi ziren, energia berriztagarriko iturrien bidez, kogenerazio bidez eta hondakinen bidez energia elektriko ekoizten duten instalazio jakin batzuei aplikatzekoak (aurrerantzean, berriztagarriei buruzko agindua edo agindua). Agindu horrek energia elektriko iturri berriztagarrien bidez, kogenerazio bidez eta hondakinen bidez ekoizten duten jarduerak arautzen dituen ekainaren 6ko 413/2014 Errege Dekretua garatu eta osatzen du. Bada errege dekretu horrek, Sistema elektrikoaren egonkortasun finantzarioa bermatzeko premia neurriak ezartzen dituen uztailaren 12ko 9-2013 Errege Dekretuak eta Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legeak, hirurek, arau-bilbe konplexu bat osatzen dute, teknologia berriztagarriekin energia elektriko ekoizten duten instalazioei ordaintzeko sistema berri bat arautzen duena.

Sektore Elektrikoari buruzko 54/1997 Legearen ordainketarako araubide berezia, 661/2007 Errege Dekretuak garatua, aldatzen da –haren pean egin zen Ultzamako Biogas Plantaren proiektua– eta energia saltzeko ordainketa-sistema berria ezartzen da.

Aipatutako IET/1045/2014 Agindua, zeina oso zabala baita, EAOko 1.761 orrialdetan garatzen da guztira, eta instalazio tipo bakoitzeko ordainketa finkatzeko aintzat hartzen diren ordainketa-parametroen araupetze xehea jasotzen du, eta azkenean horietako bakoitzari ordainketa-parametro batzuk esleitzen zaizkio (inbertsioaren ordainketa eta eragiketaren ordainketa), zeinek instalazio bakoitzak araupeko lehenengo erdi aldian (2013ko uztailaren 14tik 2016ko abenduaren 31ra) jasoko duen zenbateko zehatza zehazten baitute.

9/2013 Errege Dekretu Legeak indarra hartzen duenean araubide ekonomiko primaduna jasotzeko eskubidea duten instalazioetarako, aginduak jo du inbertsioaren arrazoizko tasa dela Estatuaren Obligazioek hamar urtera, bigarren mailako merkatuan eta 9/2013 Errege Dekretu Legeak indarra hartu aurreko hamar urteetan –hau da, 2003ko uztailaren 1etik 2013ko ekainaren 30eraino– izan duten batez besteko errendimendua.

Ultzamako udalerrian kokatutako banaketa elektriko sarrerako 500 kW-eko gehieneko injezio-potentzia elektrikodun biogas plantaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterlana.

Dokumentu honen xede den instalazioari, Araubide Bereziaren araupetze berrian ezarritakoaren arabera, kode bat legokioke, eta kode horri esleituko zaio inbertsioari dagokion urteko ordainketa eta eragiketaren ordainketa. Honako hauek dira ordainketa-modu berri honen pean jarritako urteak: 2013a (2013ko uztailaren 14tik abenduaren 31ra, II.1 eranskina), 2014a, 2015a eta 2016a (II.2 eranskina).

Gainera, ordainketa-parametroen multzo bat legozkieke, zeinek zerikusia baitute potentzia-unitatearen araberrako inbertsioaren ordainketarekin, eragiketaren ordainketarekin, arautzearen bizitza erabilgarriarekin, gutxieneko funtzionamendu-orduekin, funtzionamenduaren atalasearekin eta gehieneko funtzionamendu-orduekin, eragiketaren ordainketa jasotzearen eraginetarako; bai eta honako parametro hauek ere: instalazio tipoaren hasierako inbertsioaren balio estandarra; instalazio tipoaren funtzionamendu-orduen gehieneko kopurua; merkatuko prezioaren urte gehieneko eta gutxieneko mugak; ustiategiaren etorkizuneko diru-sarreraren zenbatespena; ustiategiaren etorkizuneko kostuen zenbatespena; arrazoizko errentagarritasuna balio gisa hartzen duen gaurkotze-tasa; instalazio tipoaren doikuntza-koefizientea eta aktiboaren balio garbia.

Horrek guztiak eragin negatiboa izan du Araubide Bereziari lotutako instalazioek (energia berriztagarrienak eta kogeneraziokoak) aipatutako araudi horiek indarra hartu arte jasotzen zuten

ordainketan. Energia elektrikoaren produkzioaren gaineko zerga edo hidrokarburoen gaineko zerga bezalako zerga-tasen aplikazioa lagungarri gertatu da energia-produkzioko instalazioen errentagarritasuna kaltetzeko; horixe da, hain zuzen, Ultzamako biogas-plantaren kasua.

Hau da, gobernu zentralak 2014an arestian aipatutako erabaki aurretik sumatu ezinak eta guztiz espero gabekoak hartu zituen, eta praktikan horrek berekin ekarri zuen Ultzamako plantak urtero 400.000 euro inguruko diru-sarrerak jasotzeari uztea; esan beharrik ez dago, urtebete baino gehiago iraun duen bahiketak SOILIK 60.000 euro inguruko defizita ekarri duela, inbertsioak barne. 400.000 euro gehiago jaso izan balitu, agerikoa denez, planta errentagarria izanen zen. Seguru nago hasierako primei eutsi izan balitzaie ez zela plantako konkurtso-egoera gertatuko, eta, noski, ez ginatkeela gaur egun egonen irizpen honen aurrean. Hori dela eta, funtsezkotzat jotzen dut txostenak honakoak jaso ditzan: hasierako egoera, onetsitako bideragarritasun planak ekarri zituena; gero etorri den egoera, aurretik guztiz sumatu ezina zena, eta horrek galeren eta irabazien kontuan izan duen eragina.

Halaber, nire poza adierazi nahi dut ganberak abeltzainen egoerari buruz egiten duen analisiagatik, guztiz egokia baita, bai eta plantarako konponbide bat bilatzeko gomendioagatik ere, berriz ere mindak kudea ditzan; izan ere horrek esan nahi du abeltzainen hondakinen kudeaketa egokia ez ezik, Ultzama osoko kiratsak gutxitzea ere; izan ere, bertako biztanleak berriz ere haiek pairatzen hasi dira eta horrek bereziki sektore turistikoa jartzen du kinka gaiztoan.

Ados gaude, halaber, proiektuak behar besteko plangintzarekin egiteari buruz eta bideragarritasun plan ahal den exhaustibo eta errealean egiteari buruz Kontuen Ganberak egin duen gomendioarekin. Aztergai dugun kasuan, uste dut halakoak zabal bete direla; izan ere, proiektu honek Nafarroan aitortza duten industriaren arloko enpresen lankidetzeta izan du aholkularitza teknikorako, bai eta Iruñeko abokatuen eta ekonomialarien bulego ospetsu baten laguntza ere, aholkularitza juridiko eta ekonomikorako. Baina berriz diot errealitatea egoskorra dela, eta INORK ERE ezin zuela pentsatu onetsita zeuden eta EAOn argitaratuta zeuden prima batzuk desagertuko zirenik, horrek zekarren segurtasun-ez juridikoarekin. Gaur den egunean, oraindik ere Europako errekurtsioak ebaztearen zain gaude.

Amaitzeko, egindako eta egiteko dauden txosten guztiak gorabehera, errealitatea da Espainian funtzionatzen ez duen ezaugarri hauetako planta bakarra Ultzamakoa dela; eta hala bada, ez dela hartan interesa dutenak falta direlako. Frogagiriak erantsi ditut. Hori gorabehera, plantak itxita jarraitzen du eta egunak pasa ahala garestiago eta zailago gertatuko da hura berriz irekitzea.

Benetan eskerrak eman nahi dizkizuet egindako lanarengatik; agur bero bat.

Iruñean 2017ko apirilaren 18an.

Francisco Javier Tornaría Iguelz

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren alegazioak

Kontuen Ganberak egin duen "Ultzamako Biometanizazio Plantari buruzko behin-behineko fisikalizazio txostena" izeneko behin-behineko txostena dela-eta, eta Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak egindako txosten teknikoan oinarrituta, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak honako alegazio hauek aurkeztu ditu:

1. ALEGAZIOA:

8. orrialdean honako hau esaten da: "2017ko urtarrilean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak emandako diru-laguntzen zati bat berreskuratzeko espedienteari ekin zion, inbertsioen iraupena ez betetzeagatik. Eskaturikoa 216.291 euro zen. Zenbatekoa Idazkaritza Tekniko Orokorrek eginiko txosten batean dago oinarrituta. Udalak, 2017ko otsailean, horren aurkako alegazioa aurkeztu zuen. Gaur den egunean, ebatzi gabe dago".

1. ERANTZUNA:

Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren martxoaren 1eko 1065/2017 Ebazpenaren bitartez ezetsi egin ziren Ultzamako Udalak aurkeztutako alegazioak, eta diru-laguntzei zegokien 216.291,40 euroko kopurua itzultzeko eskatu zitzaion –Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren 2011ko urtarrilaren 17ko 3E/2011 Ebazpenaz eta 2012ko urtarrilaren 20ko 12E/2012 Ebazpenaz ordaindu ziren–, eta horretaz gainera, berandutze-interesaren kontzeptuari dagozkion 44.159,74 euro.

2. ALEGAZIOA:

9. orrialdean honako hau dio: "Digestio anaerobioko biltegiei loturiko faktura batzuk daude, bi enpresak eginak. Batzuk 965.900 eurokoak (kostuaren % 65) eta besteak 1.486.000 eurokoak (biltegien kostu osoa). Lagapen-hartzaileak ordaindu zituen eta haren ibilgetuan kontabilizatu. Udalak 965.900 euroko fakturak aurkeztu zituen, eta gastuaren justifikaziotzat erabili ziren, landa garapenerako diru-laguntza bat lortu ahal izateko.

1.486.000 euroko fakturak, berriz, lagapen-hartzailearen eta teknologia emalearen arteko kontratuan daude oinarrituta. Azken horrek biogas plantaren instalazioa eta muntaketa egin eta martxan jarrita emateko konpromisoa zuen, "giltza eskura" hornidura kontratutzat. Fakturaren zenbatekoa digestio anaerobioko biltegien prezio bera da. Gastuaren justifikaziotzat aurkeztu zen, industria inbertsioetarako 445.800 euroko diru-laguntza lortzeko. (Inbertsioaren % 30). Beraz, enpresa ezberdinek "digestio anaerobioko biltegiak" izeneko kontzeptu beragatik fakturak egin eta kobratu zituzten. Biltegien eta urbanizazioaren obra zibilari loturiko 172.937 euroko faktura batzuk ere bikoizturik daude. Bikoizturik dauden faktura horiei esker, Garapen Ekonomikoa eta Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa Departamentuen diru-laguntzak lortu ziren."

2. ERANTZUNA:

Garai hartako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan aurkeztutako fakturak, digestio anaerobikoei buruzkoak, Ultzamako Udalak –ez kontzesio-hartzaileak– aurkeztu eta ordaindu zituen, espedientean ageri diren ordainketa-egiaztagirien arabera. Faktura horiek Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduko oinarri arauemaileetan ezarritakoaren arabera eskatutakoari zegozkion.

Oinarri arautzaile horietan, "Diru-laguntzaren bateragarritasuna" izenburuko 12. artikuluan, honako hau aipatzen da:

"Deialdi honen babesean ematen diren laguntzak bateragarriak izanen dira toki entitateak xede bererako jasotzen ahal dituen beste batzuekin, betiere 1698/2005 EE Erregelamenduaren itzalpean ematen ez badira. Zenbatekoak, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide propio batzuekin batera, inoiz ez du gainditu behar diruz lagundutako jarduketaren kostua."

Aurreko paragrafoari jarraituz, garai hartako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren diru-laguntzak bateragarri izan zitezkeen beste laguntza batzuekin, paragrafo horretan ezarritako moduan.

Laguntzen oinarri arauemaileetan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren 197/2008 Foru Aginduak argiro dio diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa diruz lagundu daitekeenaren % 60 izanen dela.

Laguntzaren amaierako ordainketa egin baino lehen, organo kudeatzaileak bertatik bertara egiaztatu zuen jarduketak guztiz eginda zeudela, eta egiaztapen horiek 2009ko abenduaren 23ko obra-ikuskapeneko aktan behar bezala jasota daude.

Nabarmendu beharra dago ezen orduko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak 2008an eman zuela aurreko inbertsioetarako diru-laguntza, Industria Departamentuak bere diru-laguntza eman baino lehen, 2010ean eman baitzuen.

Iruñean, 2017ko apirilaren 25ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria, Isabel Elizalde Arretxea

KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI

Ultzamako Udaleko lehen lehendakariorde María Purificación Etxeberria Iztueta andreak, Ultzamako Udaleko alkate ohi Francisco Pérez Arregui eta Francisco Javier Tornaria Iguelz jaunek eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuko kontseilari Isabel Elizalde Arretxea andreak aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, erabaki da txosten hau behin betiko bihurtzea.

Hala eta guztiz ere, Ganbera honek honako zehaztapenak egin nahi ditu aurreko alegazio horietako batzuk direla eta.

ULTZAMA KO UDALAREN ALEGAZIOAK

4. alegazioa.- Kontzesio administratiboa Bionergía Ultzama SAri lagatzeko elementu osagarriak eta balizko bateraezintasunak.

Erantzuna:

Alegazioaren dokumentu-oinarria konkurtso-administratzailearen txosten baten kopia partzial bat da, 2014ko irailaren 23koa, eta Bionergía Ultzama SAren eraketa-eskrituraren, 2008ko abenduaren 12koaren, kopia soil bat.

Alegazioan aipatutako egitateak ez daude jasota. Zinegotzietako bat lagapen-hartzailearen kapital sozialaren ehuneko 47 zeukan abeltzainen kooperatibako zuzendaritza kontseiluko lehendakaria zen, eta beste biak bi merkataritza-enpresa titularren administratzaile solidarioak ziren, eta bakoitzak lagapen-hartzailearen kapitalaren ehuneko bost zeukan. Kontzesioaren lagapenari buruzko osoko bilkura-ren erabakia aho batez hartu zuten bertaratu ziren udaleko zazpi kideek.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUIREN ALEGAZIOAK

3.- Obrak eta kudeaketa adjudikatzeko prozeduraren aukeraketa.-

Alegazioari emandako erantzuna:

3.1.- Iragarkian Udalaren posta-helbidea zein helbide elektronikoa eta harremanetarako pertsona gisa alkatea bera agertzeak, hala izan baitzen, ez du kentzen baldintza tekniko partikularren orriaren, proiektuaren eta kontratua definitzen duten gainerako dokumentuak argitaratu ez izana, horren barne dela simaurren kudeaketarako plana. Gure ustez, kontratazio-atariko iragarkiari erantsitako informazioa ez da nahikoa.

3.2.- Berretsi beharra daukagu ez dagoela frogaturik behin betiko bermea ordaindu zenik. Ezin gara ados egon administrazio kontratatzaileak inongo obrarik ez duela hartzen eta, horregatik, lehenengo onuradun edo kaltetua eta onuradun edo kaltetu handiena kontzesio-hartzailea bera dela dioen arrazoi-bidearekin. Kasu zehatz hau kontrakoaren adibide paradigmatikoa da.

Ez gaude ados, ezta ere, bermea dela-eta baieztatutako helburuarekin, ez eta haren muga-egunaren amaierarekin ere. Egia da alegazio-egileak agiriaren 13. klausula aipatzen duela, Kontratuei buruzko Foru Legearen 95. artikuluekin bat; artikulua hori administrazio publikoen kontratuei buruzkoa da, oro har. Aintzat hartu beharra dago, gure iritziz, obra publikoaren kontzesio-kontratuari buruzko berriazko araupetzea —30 urteko indarraldia duen kontratua da—; hari buruz, kontratuei buruzko araudiaren 166.4 artikulua dio ezen, kontzesio-hartzaileari egoztekoa zaion ebazpen baten kasuan, fidantza konfiskatu egingen zaiola.

3.3.- Obra amaierako ziurtagiriari dagokionez, jasota daukagu obraren amaierako ziurtapen bat badagoela, obraren harrera-akta baten antzekoa; semantikoki obra amaierako ziurtapen baten antzekoa den arren, desberdina da; izan ere, Kontratuei buruzko Foru Legearen 114 artikuluen arabera, halako ziurtapen batek proiektutik exekutatu diren obra-unitateak, haien prezioa eta, horrenbestez, obraren amaierako prezioa adierazi behar ditu, bai eta kontura egindako ordainketak ere. Agiri hori ez dago aztertutako espedienteetan, ezta antzekorik ere, eta horrek eragozten digu obraren kostua ziurtasunez jakitea.

4.- Azpiegituraren egoera eta Ultzamako Udalarentzat eragin dezakeen gorabehera.

4.1.- Aditzera ematen dugu ados gaudela produkzio elektrikorako primen sistema desagertzeak eta energia elektrikoaren produkzioaren gaineko edo hidrokarburoen gaineko zerga berrien aplikazioa ekarri zuten 2014an aldarrikatutako lege-aldaketek planta honen eta antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuen bideragarritasunean izan zuten eraginarekin. Hala eta guztiz ere, berresten dugu hori ez dela planta honen zailtasunen arrazoi bakarra, txostenaren 20. orrialdean aipatzen den bezala.

Ez gaude ados alegazio-egilearekin baieztatzen duenean arau-aldaketa hori izan arte plantaren ku-deaketa errentagarria izan zela. Gure datuen arabera, 2013ko abenduaren 31n, emaitza ekonomiko metatuak negatiboak ziren, -346.908 eurokoak hain zuzen.

FRANCISCO JAVIER TORNARÍA IGUELZ JAUNAREN ALEGAZIOAK

1.- Obra amaierako ziurtagiriaren eta obraren amaierako ziurtapenaren arteko desberdintasuna jada adierazi izan dugu Pérez Arregui jaunaren alegazioak aztertzerakoan.

2.- Fakturazio bikoitza egitearena, berriz, lagapen-hartzaileari egoztekoa zaion kontua da.

3.- Alegazioan baieztatzen da enpresaren ibilgetuak Ganbera honek adierazitako zenbatekoa eman beharko zuela, 5.729.509 eurokoa hain zuzen. Gure txostenaren bederatzigarren orrialdean aipatutako zenbatekoa ez dagokio ibilgetuari, baizik eta plantaren eraikuntzan egindako gastuei, gure zenbatespenaren arabera; eta horretan zergak sartzen dira, esate baterako, bai eta gastuak izanda ibilgetuan ezin aktiba daitezkeen beste batzuk ere. Horri buruz, komeni da hauek zehaztea:

Bionergía Ultzamako kontuetako ibilgetuaren balioa 4.798.120 eurokoa da 2012an. Zenbateko hori garbia da, behin 2012ra arte metatutako 304.342 euroko amortizazioa kenduta; horrek esan nahi du ibilgetuaren balorazio gordina 5.102.462 eurokoa dela. 2013ko kontuetan horri eusten zaio.

Bestetik, egiaztatu dugu obrari buruzko lehenengo faktura 737.000 eurokoa (612.000 euro gordailuei dagozkien eta 25.000 euro ingeniariaren enpresaren lansariak), Landa Garapeneko Departamentuari 2008ko abenduan aurkeztutako lehenengo inbertsio-justifikazioari dagokiona, ez zela ibilgetu gisa kontabilizatu, baizik eta hornikuntza-gastu gisa, eta dago jasota urte hartako emaitzen kontuan.

Gure ustez bikoiztuta dauden gainerako fakturak 2009an ibilgetu ez-material gisa kontabilizatu ziren 2009an (2033. kontua, Biogasa Sortzeko Plantaren Kontzesioa) eta 2010ean (2025. kontua, Biogas Plantarako Makineria eta Ekipamendua).

4.- Ados gaude honako hau baieztatzen denean: Udalak, zalantzarik gabe, aurkeztu eta egiaztatu ziren fakturak ordaindu ditu soilik, eta horiek bat datoz Landa Garapeneko Departamentuak emandako laguntzekin. Gure txostenak aurkakorik ez dio inoiz ere. Aipatzen dugu plantak ez duela inolako kosturik izan udalarentzat, eta horren arrazoia da udal honek ordaindutako fakturak lehenago kontzesio-hartzaileari kobratu zaizkiola, kontzesioaren lagapenerako kontratuan ezarritako fakturazio-prozedurari jarraituz.

5.- Txosteneko 10. orrialdeko finantzaketa-koadroan ez dira jaso ordainduta dauden abal publikoak. Haien zenbatekoa 818.002 eurokoa da, eta plantan ordaindutako funts publiko guztien zati bat jasotzen du. Zenbatekoak beheratu egiten du finantza-entitateen ekarpena. Gure ustez, Ministerioaren maileguak planta finantzatu zuen, zeren eta Ministerioak hura itzultzeko eskatu baitzuen finantzatu beharreko proiektua egin izana justifikatu ez zelako.

6.- Txostenak ez du zalantzan jartzen proiektua erredaktatu zutenek kontratazio mahaiko kideak izatea, berez; zalantzan jartzen duena da proiektu horretan adjudikazio-hartzaileak ezarritako zehaztapen batzuk jasotzea eta, gero, lagapen-hartzailearen akziodun bihurtzea.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO KONTSEILARIAREN ALEGAZIOAK

2. alegazioa.- Txostenaren bederatzigarren orrialdean kontzeptu bera dela-eta bi enpresa desberdinek fakturatu izanari buruz egiten den aipamenak deskribatzen du Bioenergía Ultzama kontzesio-hartzailearen kontabilitateari dagokion egitate bat; izan ere, merkataritza-enpresa horrek bi aldiz ordaindu zuen kontzeptu berarengatik.

Garai hartako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan aurkeztutako fakturak, digestore anaerobikoei buruzkoak, Ultzamako Udalak —ez lagapen-hartzaileak— aurkeztu eta ordaindu zituen.

Horren arrazoia da plantaren eraikuntzaren finantzaketa artikulatzek modua, 2009ko otsaileko lagapen-kontratuan ezarritakoa; izan ere, honako hau ezarri zuen:

- Faktura bat igorriko da, Ultzamako Udalaren izenean, obren adjudikazio-hartzaileak egin dituen obren zenbatekoa dela eta, obraren zuzendaritza fakultatiboak haiek egiaztatu ondoren.
- Aurrekoa eginda, Udalak, enpresa emakida-hartzaileari, hau da, Bioenergía Ultzama Sari, faktura bat igorriko dio, jasotako fakturaren zenbateko berarekin. Enpresa kontzesio-hartzaileak faktura ordainduko du hura igorri eta hilabete igaro baino lehen.
- Behin kontzesio-hartzailearengandik dagokion fakturaren ordainketa jasota, Ultzamako Udalak bere burua behartzen du ziurtatutako lanak direla-eta adjudikazio-hartzailearengandik jasotako fakturak ordaintzera.
- Ultzamako Udalak, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jaso ondoren, haien zenbatekoa igorriko dio enpresa kontzesio-hartzaileari.

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

